



1/2024 JARRAIBIDEA, MARTXOAREN 7KOA, EUSKO JAURLARITZAKO LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO SAILBURUORDEARENA, AMIANTOAREN ARRISKUPEKO ENPRESEN ERREGISTROAREN (AAEE) KUDEAKETARI ETA AMIANTOAREKIKO ESPOSIZIOAGATIKO ARRISKUA DAKARTEN JARDUERETARAKO LANEKO PLANEI BURUZKOA



AURKIBIDEA

I. BIBLIOGRAFIA	3
II. JARRAIBIDEAN ERABILITAKO LABURTZAPENAK	7
III. SARRERA	
- Amianto, agente kimiko kantzerigenoa	8
- Amianto-zementuaren edo zuntz-zementuaren erabilera Espainian	9
- Amiantoaren bizitza teknika	11
IV. AMIANTOAREN ARRISKUPEKO ENPRESEN ERREGISTROAREN (AAEE) KUDEAKETA	
- Aplikatzekoa den araudia	13
- Definizioak: enpresa eta instalazio nagusiak	13
- Amiantoari lotutako jarduerak edo eragiketak egin nahi dituzten enpresen betebeharrak	14
- AAEEen inskripzioa egiteko eskaera	14
- AAEEen aurretiaz aitortutako datuen aldaketa komunikatzea	15
- AAEEko inskripzioa berritzeko komunikazioa	16
- AAEEtik kentzeko eskatzea	16
- AAEEen inskribatutako enpresen inguruko estatistikak lantzea	17
- AAEEen egindako idazpenak LSOINera igortzea	17
V. 396/2006 ERREGE DEKRETUAREN ALDERDI PRAKTIKOAK:	
- Xedea	18
- Aplikazio-eremu subjektiboa. Ezarpen-eremu objektiboa	18
- Laneko plana egiteko ardura	24
- Langileen betebeharrak	26
- Laginak hartzea	32
- Amianto-zuntzen azterketa kuantitatiboan espezializatutako laborategiak	38
- Amianto-zuntzen azterketa kualitatiboan espezializatutako laborategiak	39
VI. LANEKO PLANEN KUDEAKETA	
- Administrazio-jarduketa.	42
- Administrazio publikoen arteko datu-trukea	44
- Laneko planen motak	45
- Laneko planaren kontrola eta jarraipena	53
- Datuen erregistroa. Dokumentazioaren artxiboa	56
- Hondakin ez-arriskutsuen kudeaketa	61
VII. AMIANTO-ZEMENTUZKO ELEMENTUEN BIZITZA BALIAGARRIA LUZATZEA	
- Definizioa	68
- Amianto-zementuzko elementuen bizitza baliagarria luzatzeko debekua	69
VIII. SOLDATAPEKO LANGILERIK EZ DUTEN LANGILE AUTONOMOAK	
- Aplikatzekoa den araudia	71
- Soldatapekorik ez duen langile autonomoaren betebeharrak:	72
- Soldatapekorik ez duen langile autonomoa kontratatzen duen enpresaren betebeharrak	74
- Soldatapekorik ez duen langile autonomoa kontratatzen duen enpresaren betebeharrak eta langile autonomoaren beraren betebeharrak:	75
IX. ERANSKINAK:	
- 1. eranskina: Lan-prozedura segurua	77
- 2. eranskina: AAEEra bidaltzeko eskabide eta komunikazioen inprimakiak	84

I. BIBLIOGRAFIA:

Gaiari loturiko Europako legeria:

- Europako Kontseiluaren 76/769/EEE zuzentaraua, uztailaren 27koa, Zenbait substantzia eta prestakin arriskutsu erabiltzeko eta merkaturatzeko murrizketei buruzkoa.
- Europako Kontseiluaren 83/477/EE zuzentaraua, irailaren 19koa, Lanean amiantoaren eraginpean egotearekin lotutako arriskuetatik langileak babesteari buruzkoa.
- Europako Kontseiluaren eta Parlamentuaren 1999/43 zuzentaraua, maiatzaren 25ekoa, Zenbait substantzia eta prestakin arriskutsu erabiltzeko eta merkaturatzeko murrizketei buruz Kontseiluak emandako 76/769/EEE zuzentaraua hamazazpigarren aldiz aldaraztea xede duena.
- Batzordean 1999/77/EE zuzentaraua, uztailaren 26koa, Zenbait substantzia eta prestakin arriskutsu erabiltzeko eta merkaturatzeko murrizketei buruz Kontseiluak emandako 76/769/EEE zuzentaruaren I. eranskina seigarren aldiz aurrerapen teknikoetara egokitzea xede duena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/18/EE zuzentaraua, 2003ko martxoaren 27koa, Langileak lanaldian zehar amiantoaren eraginarekin loturiko arriskuetatik babesteari buruz Kontseiluak emandako 83/477/EEE Zuzentaraua aldaraztea xede duena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023/2688 (EU) zuzentaraua, 2023ko azaroaren 22koa, Langileak lantokian amiantoaren eraginpean egoteari loturiko arriskuetatik babesteari buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako 2009/148/EE zuzentaraua aldaraztea xede duena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1907/2006/EE erregelamendua, 2006ko abenduaren 18koa, Substantzia eta prestakin kimikoak erregistratzea, ebaluatzea, baimentzea eta mugatzeari buruzkoa (REACH). Erregelamendu horren bidez, Substantzia eta Prestakin Kimikoen Europako Agentzia ere sortu zen, eta 1999/45/EE zuzentaraua aldarazteaz gain, Kontseiluaren 793/93/EEE erregelamendua, Batzordearen 1488/94/EE erregelamendua, Kontseiluaren 76/769/EEE zuzentaraua eta Batzordearen 91/155/EEE, 93/67/EEE, 93/105/EE eta 2000/21/EE zuzentaruak baliogabetu ziren
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1272/2008/EE Erregelamendua, 2008koa abenduaren 16koa, Substantzia eta nahasketa kimikoen sailkatze, etiketatze eta ontziratzeari buruzkoak xedatzen dituena, eta 67/548/EEE eta 1999/45/EE zuzentaruak baliogabetzea eta 1907/2006/EE erregelamendua aldaraztea xede dituena.

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/148/EE zuzentaraua, 2009ko azaroaren 30ekoa, Langileak lantokian amiantoaren eraginpean egoteari loturiko arriskuetatik babesteari buruzkoa.
- Europako Parlamentuaren 2013ko ebazpena, martxoaren 14koa, Lantokian amiantoaren eraginpean egoteak osasunerako dituen arriskuei eta dagoen amianto guztia deuseztatzeko asmoei buruzkoa.
- Batzordearen 2014/955/EB erabakia, abenduaren 18koa, Hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE erabakia aldaraztea xede duena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE zuzentzarauak dioenarekin bat etorritik.
- Ekonomia eta Gizarte kontseiluak “EBtik amiantoa desagerrarazteari” buruz emandako txostena (2015/C – 251/3).

Gaiari loturiko estatuko legeria:

- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren testu bategina onartzen duena.
- 20/2007 Legea, uztailaren 11koa, Lan autonomoaren estatutuarena.
- 45/1999 Legea, azaroaren 29koa, Nazioz gaindiko zerbitzuak direla-eta langileak lekualdatzeari buruzkoa.
- 32/2006 Legea, urriaren 18koa, Eraikuntzaren sektoreko azpikontratazioa arautzen duena.
- Lan-arriskuen prebentzioari buruzko Legea (31/1995 Legea, azaroaren 8koa)
- 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onesten duena.
- 773/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 30ekoa, langileek babes indibidualeko ekipamenduak erabiltzeari lotutako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzkoa.
- 1215/1997 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, Langileek lan-ekipamenduak erabiltzeko gutxieneko segurtasun- eta osasun-baldintzak ezartzen dituenak.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 07/2022 Legea, apirilaren 8koa, Hondakinena eta Lurzoru Kutsatuen, Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko.

- 665/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 12koa, Lanean dauden bitartean langileak agente kantzerigenoen esposizioarekin lotutako arriskuen aurka babesteari buruzkoa.
- 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntzako obretako segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen.
- 374/2001 Errege Dekretua, apirilaren 6koa, Langileen osasuna eta segurtasuna agente kimikoekin lan egiteak dituen arriskuen kontra babesteari buruzkoa.
- 171/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena enpresa-jardueren koordinazioaren arloan.
- 396/2006 Errege Dekretua, martxoaren 31koa, Amiantoarekiko esposizioaren arriskua dakarten lanei aplikatu behar zaizkien gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen.
- 1109/2007 Errege Dekretua, abuztuaren 24koa, Eraikuntzaren sektoreko azpikontratazioa arautzen duen urriaren 18ko 32/2006 Legea garatzea xede duena.
- 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, Eraikuntza- eta eraiste-hondakinak sortzea eta kudeatzea arautzen duena.
- 97/2014 Errege Dekretua, otsailaren 14koa, Espainiako lurraldean merkantzia arriskutsuak errepidez garraiatzeko eragiketak arautzen dituen.
- 553/2020 Errege Dekretua, ekainaren 2koa, Estatuko lurraldean hondakinen garraioa arautzen duena.
- 646/2020 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, Hondakinak zabortegietan utziz ezabatzeko jardura arautzen duena.
- 2414/1961 Dekretua, azaroaren 30ekoa, jardura gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko araudia onartzen duena.
- 1982ko uztailaren 21eko agindua, Amiantoa manipulatu behar denean nola jardun azaltzen duena.
- 1984ko urriaren 31ko agindua, Amiantoaren kalteak jasateko arriskua eragiten duten lanbideei buruzko araudia onartzen duena.
- 1986ko ekainaren 24an Genevan onartutako "Amiantoa segurtasunez erabiltzeko hitzarmena (Nazioarteko Lan Erakundearen 162.a)" berresteko tresna.

- 1046/1989 Errege Dekretua, azaroaren 10ekoa, Substantzia eta prestakin arriskutsuen komertzializatzeari eta erabilerari mugak ezartzen dizkiona.
- 1993ko abenduaren 30eko agindua: produktu kimikoak. Substantzia eta prestakin arriskutsuen komertzializatze eta erabilerari mugak ezartzen dizkion azaroaren 10eko 1406/1989 Errege Dekretuaren eranskin bat eguneratzea xede duena.
- 2001eko abenduaren 7ko agindua, Substantzia eta prestakin arriskutsuen komertzializatze eta erabilerari mugak ezartzen dizkion azaroaren 10eko 1406/1989 Errege Dekretuaren I. eranskinaren zati bat aldaraztea xede duena.

Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Institutu Nazionalaren (LSOIN) arau teknikoak eta argitalpenak:

- UNE 171370-1-2014 Araua. Amiantoa. 1. zatia: Amiantodun materialekin lan egiten duten enpresak kualifikatzea.
- Lanerako Segurtasunaren eta Osasunaren Batzorde Nazionalaren lantaldeak 2014ko abenduaren 11n eta 2015eko otsailean plazaratutako dokumentua.
- LSOINen *Amianto-hondakinak: ekoizletik kudeatzailera* izeneko dokumentua, 2016ko apirilekoa.
- LSOINen *Espainiako amianto-zementuzko estalkien bikoizketak aztertzeke lana* izeneko dokumentua.
- LSOINen *IV. eranskineko amiantoarekiko esposizioa ebaluatzeke datuak betetzean kontuan hartu behar diren alderdi batzuk* izeneko dokumentua.
- Amiantoarekiko esposizioari lotutako arriskuak ebaluatu eta prebenitzeko gida teknikoa

Jarraibidean aipatutako beste testu batzuk:

- Auzitegi Goreneko Lan Arloko Salak doktrina bateratzeko kasazioan emandako epaia. (2022ko otsailaren 22ko 172/2022).

II. JARRAIBIDEAN ERABILITAKO LABURTZAPENAK:

- BOE: Estatuko Aldizkari Ofiziala
- EE: Eguneko Esposizioa
- AE: Arriskuen Ebaluazioa
- LSOINen gida teknikoa: Amiantoarekiko esposizioari lotutako arriskuak ebaluatu eta prebenitzeko gida teknikoa (LSOIN, 2022ko apirila)
- LSOIN: Laneko Segurtasun eta Osasuneko Institutu Nazionala
- LAPL: 31/95 Legea, azaroaren 8koa, Laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa.
- AdM: Amiantodun Materialak
- PBMO: Polarizazio-barreiadurako Mikroskopia Optikoa
- LAP: Laneko Arriskuen Prebentzioa
- SOP: Segurtasun eta Osasun Plana
- AAEE: Amiantoaren Arriskupeko Enpresen Erregistroa
- BEE: Baimendutako Enpresen Erregistroa
- JMZ: Jarduera Multzo Zehatza
- IMB: Ingurumeneko Muga Balioa

III. SARRERA

1. Amiantoa, agente kimiko kantzerigenoa:

2023ko azaroaren 22ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023/2688 (EU) zuzentarauarekin bat etorritik (manu horrek aldatu zuen langileak lantokian amiantoaren eraginpean jartzeari loturiko arriskuetatik babesteari buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako 2009/148/EE zuzentzua) amiantoa **kartzinogeno arriskutsua** da, eta egun oraindik ere sektore ekonomiko batzuei eragiten die, hala nola eraikinen eraberritzeari, meatzaritzari eta harrobien ustiapenari, hondakinen kudeaketari eta suak itzaltzeari loturiko jarduerari. Sektore horietan guztietan, langileek esposizio-arrisku handia dute. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1272/2008/EE erregelamenduaren 3. ataleko VI. eranskinak dioenarekin bat (hirugarren kontuan hartuzkoa), Amiantoa **1A kategoriako agente kartzinogenotzat hartzen da**. Hau da, jakina da gizakien hozi-zeluletan mutazio hereditarioak eragiten dituela.

Gaixotasun profesionalei buruzko Europako estatistikek dioskunez, **minbizi profesionalen eragile nagusia da**, alde handiz: EUko estatu kideetan, minbizi profesionaltzat onartutako kasuen % 78 amiantoari loturikoak dira.

Europako Batzordearen kalkuluen arabera (COM (2021) 323 azkena – Europar Batasunaren esparru estrategikoa laneko osasunaren eta segurtasunaren arloan 2021-2027. Osasuna eta segurtasuna etengabe eraldatzen ari diren lan-munduan), urtero-urtero 200.000 langile baino gehiago hiltzen dira Europar Batasunean lanari loturiko gaixotasunen ondorioz. Amiantoarekiko esposizioak berak bakarrik 88.000 lagun baino gehiago hiltzen ditu urtean, eta lanean garatutako biriketako minbizien % 55 eta % 85 artean, amiantoak eragindakoak dira. Adituen kalkuluen arabera, esposizio horri loturiko hilkortasun-tasak gorantz egiten jarraituko du 2020 eta 2030eko hamarkadetan.

Norbaitek airean esekita dauden amianto-zuntzak arnasten baditu, substantzia horrek gaixotasun larriak eragin diezazkioke, hala nola mesotelioma eta biriketako minbizia. Gaixotasunaren lehen zantzuak, batez beste, esposizioa gertatu eta hogeita hamar urtera hasten dira agertzen, eta kasu askotan, laneko jarduerari loturiko heriotza eragiten.

Beste alde batetik, zuzentarau horren bosgarren kontuan hartuzkoan azaltzen denez, amiantoarekiko esposizio batzuk ez dira hura benetan manipulatzearen ziozkoak, eta, hala ere, zeharkako esposizioek eragin nabarmenak izan ditzakete osasunean: alde batetik, esposizio pasiboa dago, amiantodun materialekin lan egiten duten langileengandik hurbil edo amiantodun materialak andeatzen diren instalazioetan lan egiten ari diren pertsonen jasaten dutena, eta bestetik, bigarren mailako esposizioa dago, amiantoaren eraginpean lan egiten duten pertsonen amianto-zuntzak etxera eramatearen ondorioz –batez ere, ilean eta arropen–, haiekin bizi diren pertsonen nozitzen dutena.

2. Amianto-zementuaren edo zuntz-zementuaren erabilera Espainian:

XX. mendean, asbesto deiturikoaren edo amiantoaren propietate fisiko eta kimiko bikainen eta prezio merkearen ondorioz, arrunt erabili zen lehengai gisa, oro har, industriaren, garraioaren eta, bereziki, eraikuntzaren sektoreko material eta produktu ugari fabrikatzeko.

Amiantodun materialik fabrikatuena eta erabiliena asbesto-zementua edo amiantodun zuntz-zementua izan da, Espainian «**uralita**» izenez ezaguna (eraikuntzan erabili ohi den materiala, aglomeratzaile ez-organiko hidraulikoa eta amianto-zuntzez sendotutako zementua nahasiz egindakoa), batez ere, ondoko elementuetan aurki daitekeena: plaka uhinduak, estalkietarako plakak, ur-kanalizazioak, zorrotenak, ur-biltegiak, hodiak edo tximiniak, elementu apaingarriak, estalkietako erremateak, estalkietako isurkiak, estalkietako gailurrak eta abar.

Zehazki, zuntz-zementuzko plakei gagozkiela, gauza jakina da estalki gisa erabili direla, batez ere, eraikuntzetan (eraikinetan, argi-patioetan, estalpeetan, industria-nabeetan, nekazaritza edo abeltzaintzako nabeetan eta abarretan) eta, ondorio horietarako, azpimarratzekoa da oso hauskorrak direla, lodiera txikikoak direlako (3 eta 6 mm artekoak), eta egituraren gainean zuzenean jartzen direla, oratzeko gakoak eta torloju ahokagarri bereziak erabiliz. Gaur egun ere, eraikin askotan aurki ditzakegu.

Jakin dakigunez, 1920 eta 1984 urteen artean, Espainian fabrikatu zen asbesto-zementuaz denaz bezainbatean, krisotilo-zuntzez gain, amosita-zuntzak eta krozidolita-zuntzak ere erabili ziren; 1984 eta 2002 urteen artean, berriz, ia-ia krisotiloa bakarrik erabili zen, pisu-ehunekoaren % 10 edo 15 inguruan.

Gaur egun, Espainian ez dago antzina jarri eta modu seguru eta planifikatuan kendu beharko liratekeen amianto-zementuzko estalkien kopuru, kokaleku eta kontserbazio-egoeraren berri jasotzen duen azterlan zehatzik. Hala eta guztiz ere, inportazio-datuak (2,6 milioi tona mineral inportatu ziren) eta zuntz-zementuaren ekoizpen-datuak (gutxi gorabehera, inportazioaren % 77 zuntz-zementu ekoizteko sektorean erabili zen) kontuan hartuta, kalkulatu da mota horretako materialetan txertatu den amianto kopurua 2 milioi tona ingurukoa dela.

Era berean, zuntz-zementua ekoitzi edo fabrikatzeko erabili zen pisuaren arabera amianto-zuntzen ehunekoa aintzat hartuta, kalkulatu da Espainian, gutxienez, zuntz-zementu daukaten 20 milioi tona produktu manufakturatuta direla –gehien-gehienak, estalkietan erabiltzeko elementuak (plaka lauak, plaka uhinduak, erretenak, zorrotenak, tangak...) eta ur-banaketako sareak ehuntzeko hodiak– eta 15 milioi metro karratu baino gehiago instalatuta.

Gaur egun, langileak amianto-zuntzen eraginpean dauden edo horien arriskuan egon daitezkeen jarduera eta lan ohikoenak honako hauek dira: amiantoa duten materialak eraisteko, kentzeko, desagerrarazteko, eraberritzeko eta mantentzeko lanak, larrialdietako eta suteen aurkako zerbitzuak, hondakinei lotutako garbiketa-lanak,

deskontaminazio-lanak eta ezabaketa-lanak (*ikus* Definizioei eta aplikazio-eremuari buruzko atalak).

3. Amiantoaren bizitza teknikoa:

Zenbait substantzia eta prestakin arriskutsu merkaturatzeko eta erabiltzeko mugak ezartzen dituen azaroaren 10eko 1406/1989 Errege Dekretuaren I. eranskina aldatu zuen 2001eko abenduaren 7ko Aginduak dakarren eranskinaren arabera, baimena ematen da agindua indarrean hasi aurretik (2002ko ekainaren 14aren aurretik), instalatuta edo zerbitzuan zeuden eta amianto-zuntzak dituzten produktuak erabiltzeko, **harik eta ezabatzen diren arte edo haien bizitza baliagarria edo teknikoa amaitzen den arte**, betiere egoera onean badaude eta ingurumenean zuntzak askatzeko arriskurik ez badute.

Bizitza baliagarri edo teknikotzat hartzen da produktu edo elementu jakin bat fabrikatzen edo instalatzen deneko eginkizuna betetzen duen aldi zenbatetsia. Bizitza baliagarriari honako hauek eragiten diote: materiala eguraldi-baldintzen eraginpean jartzea (bereziki, estalkietan), zerbitzuan jarri aurreko biltegiatzea, erabiltze- eta mantentze-baldintzak...

Amiantodun materialen aurreko prebentzioaren esparruan, honela ulertu behar dugu bizitza baliagarriaren amaiera: dena delako materialaren narriadura-egoera edo haustura-arriskua dela-eta, eta, horren ondorioz, amianto-zuntzak aska daitezkeela eta, material horien eraginpean dauden langileen osasuna arriskuan jar dezakeen unea. Zuntz-zementu edo fibrozementuari doakionez, kalkulaturako bizitza baliagarria 30-35 urte ingurukoa izan daiteke, produktua fabrikatzen den unetik zenbatzen hasita; hala, denbora hori igarotakoan, hondatzen eta propietateak galtzen joan daiteke (*«Amianto-zementuzko estalkien bikoizketari buruzko analisia Espainian»*, INSST).

Nolanahi ere, Europako Parlamentuaren 2013ko martxoaren 14ko Ebazpenak, amiantoarekin lotutako lantokiko osasun-arriskuei eta amianto guztia ezabatzeko

aurreikuspenei buruzkoak, **30 eta 50 urte arteko bizitza baliagarria** ezartzen du (P kontuan hartuta).

Ilido horretan, kontuan izan behar dugu Europak amiantoaren arloan darabilen egungo politikak herrialde kideetan oraindik ere instalaturik dagoen amianto guztia ezabatzea duela helburu (ikus, besteak beste, Europar Batasunean amiantoa desagerrarazteari buruzko EGABen 2015/C – 251/3 irizpena).

Horrenbestez, 396/2006 Errege Dekretuak xedatutakoari jarraikiz, bizitza baliagarria amaitu ondoren, nahitaezkoa da amiantodun materialak kentzea eta hondakin arriskutsu gisa kudeatzea, horretarako aplikatu beharreko araudiari men eginez (*ikus* amianto-hondakinen kudeaketari buruzko atala).

IV. AMIANTOAREN ARRISKUPEKO ENPRESEN ERREGISTROAREN (AAEE) KUDEAKETA:

1. Aplikatzekoa den araudia:

396/2006 Errege Dekretuaren 17. artikulua honako hau ezartzen du:

1. Errege Dekretu honen aplikazio-eremuan sartzen diren jarduerak edo lanak egin behar dituzten enpresa guztiak enpresaren instalazio nagusiak dauden lurraldeko AAEEen inskribatu beharko dira. Lurralde horretako lan-agintaritzaren barneko organo batek kudeatzen du erregistroa. Horretarako, III. eranskinean jasotako fitxa bete beharko dute.

Aurreko paragrafoan aipatutako organoak haren erregistroetan egindako idazpen guztien kopia bidaliko du Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Institutu Nazionalera, bertan, amiantoaren ziozko arriskua duten enpresen erregistroa jasoko baita. Gaiaren gaineko eskumena duten administrazioen erregistroak elkarri komunikatuta egongo dira, erregistroetan jasota dagoen informazio guztia eskura izateko.

2. AAEEen inskribatutako enpresek aurreko ataleko lehenengo paragrafoan ageri lan-agintaritzari jakinarazi beharko diote arestian aipatu ditugun datuen gaineko edozein aldaketa, hamabost eguneko epearen barruan, aldaketak gertatzen diren egunetik zenbatzen hasita.

2. Definizioak: enpresa eta instalazio nagusiak:

Enpresatzat hartuko da langileek beren borondatez eta ordain jakin baten truke ematen dituzten zerbitzuak jasotzen dituen pertsona fisiko edo juridiko edo ondasun-erkidego oro, baldin eta zerbitzuok besteren kontura ematen badituzte, enpresaren antolamendu- eta zuzendaritza-esparruari atxikirik.

Bereziki, ondorio horietarako, AAEEen inskribatuta egon behar dute jarraibide honen aplikazio-eremu objektiboari buruzko atalean ageri dien jarduera edo eragiketaren bat

egin nahi duten enpresek, baldin eta enplegaturiko pertsonak amianto-zuntzen edo amiantodun materialen eraginpean badaude edo horien arriskuak pairatu baditzakete (*ikus aplikazio-eremuari buruzko atala*).

Instalazio nagusitzat hartuko dira enpresak amiantoa kentzeko jarduera nagusia egiten dueneko instalazioak, sozietatearen helbidearekin bat datozen edo ez kontuan hartu gabe.

3. Amiantoari lotutako jarduerak edo eragiketak egin nahi dituzten enpresen betebeharrak:

- AAEEen izena emateko eskatzea.
- AAEEen aurretiaz aitortutako datuen aldaketa komunikatzea.
- AAEEko izen-ematea berritzeko eskaera egitea.
- AAEEtik kentzeko eskatzea.

4. AAEEen izena emateko eskatzea:

Jarraibide honen aplikazio-eremu objektiboari buruzko atalean agertzen diren jarduera edo eragiketaren bat edo batzuk egiten dituen enpresa orok, jarduera egiten hasi baino lehen, izena eman beharko du instalazio nagusiak dituen lurralde historikoko AAEEen; horretarako, inskripzio-eskabide telematikoa erabili beharko du lan-arloan eskumena duen sailaren web-orria del bide, jarraibide honen edukiarekin bat etorriz (396/2006 Errege Dekretuaren 17.1 artikulua).

<https://www.euskadi.eus/erregistroa/amianto-enpresen-erregistroa/web01-a2langiz/eu/>

Jarduera edo eragiketa horiek lurraldera lekualdatutako enpresa batek egiten baditu (Nazioz gaindiko zerbitzuen esparruan, langileen lekualdaketari buruzko 45/1999 Legearen 1.2 artikulua), lekualdaketaren iraupena gorabehera, langileak lekualdatzen

dituen enpresak jarduerak lehen aldiz egiten dituen lurraldeko AAEEen inskribatu beharko du.

Esandako jarduerak edo eragiketak eraikuntza-obra baten esparruan egiten badira, inskripzioa egin aurretik, arestian aipatutako inskripzioa egin baino lehen, Enpresa Bermatuen Erregistroan (EBE) ere izena eman beharko du.

Ikus, ondorio horietarako, Eraikuntza Sektoreko Azpikontratazioa arautzen duen urriaren 18ko 32/2006 Legearen 2. eranskina, eta eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren I. eranskina.

Inskripzio-eskabidearekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Ordezkaritzaren egiaztagiria;
- Prebentzio-jardueraren antolaketari buruzko egiaztagiria;
- Enplegatuta dauden langileei buruzko egiaztagiria, eskabidearen data daukan lan-bizitzaren txostena aurkeztuta;
- Legezko ordezkariak izenpetutako eta AAEEen aurrean egindako adierazpena, inskripzio-eskabide horretan jaso diren datuak egiazkoak direla egiaztatzen duena.

5. AAEEen aurretiaz aitortutako datuen aldaketa komunikatzea:

Enpresa AAEEen inskribatu eta gero, aurretiaz aitortu diren datuen aldaketa oro enpresa inskribatuta dagoen lurraldeko lan-agintaritzari jakinarazi beharko zaio, aldaketa gertatu eta 15 egun balioduneko epearen barruan. Horretarako, eskabide telematikoa erabiliko da lan-arloko eskumena daukan sailaren web-orria erabiliz, jarraibide honen edukiarekin bat etorritz (396/2006 Errege Dekretuaren 17.2 artikulua).

<https://www.euskadi.eus/erregistroa/amianto-enpresen-erregistroa/web01-a2langiz/eu/>

Instalazio nagusien kokapena aldatuz gero, enpresak baja eman beharko du ordura arte inskribatuta egon den lurralde historikoko AAEEen.

6. AAEEko inskripzioa berritzeko komunikazioa:

AAEEren eraginkortasuna eta eragingarritasuna areagotzeko eta aplikatzekoa den indarreko araudia betetzen dela bermatzeko, eta, bereziki, osasun-zaintzako programen bidezko osasunaren zaintza bermatzeko xedez, enpresa inskribatu ondotik, **hiru urtean behin, inskripzioa eragin zuen jarduera(k) edo eragiketa(k) egiten jarraitzen duela egiaztatzeko komunikazio sinesgarria aurkeztu beharko du enpresa inskribaturik dagoen AAEE kudeatzen duen lan-agintaritzan**, eta, beraz, erregistro horretan inskribaturik jarraitu nahi duela adierazteko. Bestela, lan-agintaritzak inskripzioa indargabetzeko eta bertan behera uzteko izapideak hasarazi ahalko ditu.

Horretarako, eskaera telematikoa aurkeztu beharko da lanaren arloko eskumena daukan sailaren web-orria dela bide, jarraibide honen edukiarekin bat etorritz.

<https://www.euskadi.eus/erregistroa/amianto-enpresen-erregistroa/web01-a2langiz/eu/>

7. AAEEtik kentzeko eskatzea:

AAEEren eraginkortasuna eta eragingarritasuna areagotzeko eta aplikatzekoa den indarreko araudia betetzen dela bermatzeko, eta, bereziki, osasun-zaintzako programen bidezko osasunaren zaintza bermatzeko xedez, AAEEko inskripzioa eragin zuen jarduera(k) edo eragiketa(k) egiteari uzten baldin badio, inskripzioa erregistrotik kentzeko eskatu beharko du 15 egun balioduneko epearen barruan, baja gertatu den egunetik zenbatzen hasita. Horretarako, eskabide telematikoa erabiliko da lan-arloko eskumena daukan sailaren web-orria erabiliz, jarraibide honen edukiarekin bat etorritz.

<https://www.euskadi.eus/erregistroa/amianto-enpresen-erregistroa/web01-a2langiz/eu/>

Ondorio horretarako, kontuan hartu beharko da LAPLren 23.2 artikulua eta 396/2006 Errege Dekretuaren 18.4 artikulua lan-agintaritzara bidali beharreko dokumentazioari

buruz ezarritakoa (ikus Datuen Erregistroari eta Dokumentazioaren Artxiboari buruzko atala).

8. AAEEen inskribatutako enpresen inguruko estatistikak lantzea:

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako AAEEen inskribatutako enpresen zerrenda, aurretiko adostasunez, publikoa izango da eta behar bezala eguneratuko da.

9. AAEEen egindako idazpenak LSOINera igortzea:

AAEEen egiten diren idazpen guztien kopia bidaliko du berehalakoan lan-agintaritzara eskudunak LSOINera. Bertan, amiantoaren arriskupeko enpresen errolda kudeatuko da (396/2006 Errege Dekretuaren 17.1 artikulua).

Era berean, idazpen guztien kopia bidaliko da berehalakoan Lan Ikuskaritzara eta enpresaren instalazio nagusiak dauden lurralde historikoko OSALANen zentrora.

V. 396/2006 ERREGE DEKRETUAREN ALDERDI PRAKTIKOAK:

1. Xedea

396/2006 Errege Dekretuaren 1.1 artikulua arabera, dekretuaren helburua da, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen esparruan, gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzea, langileak lanean amiantoaren eraginpean egotearen ziozko arriskuetatik babesteko eta arrisku horiek prebenitzeko.

2. Eremua

2.1. Aplikazio-eremu subjektiboa

Jarraibide honen barrukoa da arestian deskribatutako zeinahi jarduera eta eragiketa egiten duen enpresa oro, dela jarduera nagusi gisa, dela zeharkakoa, dela aldi baterakoa, betiere langileak arnasbidez amianto-zuntzen edo amianto duten materialen eraginpean badaude edo egon badaitezke (*ikus* aplikazio-eremu objektiboari buruzko atala).

2.2. Ezarpen-eremu objektiboa:

Jarraibide honen aplikazio-eremuaren barrukoak dira langileak amianto-zuntzen edo amianto duten materialen eraginpean dauden edo egon daitezkeen jarduera eta eragiketa guztiak (396/2006 Errege Dekretuaren 3.1 artikulua eta 2023/2668 Zuzentarauaren kontuan hartuzkoak). Hala, bereziki honako jarduera hauei buruz ari gara:

- eraikuntza-, eraberritze- edo birgaitze-lanak;
- amianto edo amiantodun materialak dauden eraikinak eraistea;
- amianto edo amiantodun elementuak, makinak edo tresnak eraisteko lanak;

- amianto edo amiantodun materialak dituzten ekipoetan, unitateetan (hala nola itsasontziak, ibilgailuak, trenak), instalazioetan, egituretan edo eraikinetan egiten diren kentze-lanak;
- amianto edo amiantodun materialak dituzten ekipoetan, unitateetan (hala nola itsasontziak, ibilgailuak, trenak), instalazioetan, egituretan edo eraikinetan egiten diren mantentze- eta konpontze-lanak;
- amiantodun materialak lekuan bertan edo hurbil daudelako, amianto-zuntzak askatzeko arriskua dakarten mantentze- eta konpontze-lanak;
- amiantodun hondakinak garraiatu, tratatu eta suntsitzea;
- amiantodun hondakinak kudeatzea;
- meatzaritza;
- larrialdietarako eta suteen aurkako zerbitzuak amianto edo amiantodun materialak dauden lekuetan;
- hondakin arriskutsuak aldi baterako biltegiratzea, bai eta etxeko hondakinak eta antzeko hondakinak gaika biltzeko zentroak (Garbiguneak) ere, baldin eta, halakoen berariazko araudiaren arabera, amianto-hondakinak onartzen badituzte edo, berariaz onartzen ez badituzte ere, egiatan, mota horretako hondakinak instalazioetan jasotzen badituzte, hondakinon paketatzea eta etiketatzea gorabehera;
- amianto-hondakinietarako zabortege baimenduak;
- materialen lagin fisikoak hartzea;
- airearen zaintza eta kontrola;

- bai eta amiantodun materialak manipulatzeko dituzten beste jardura edo eragiketa guztiak ere, betiere laneko ingurunean amianto-zuntzak askatzeko arriskua badago.

Oro har, **goian deskribaturiko** amiantoaren eraginpeko lanak dira amianto-zuntzak ingurunean aska ditzaketen lan nagusiak, eta, beraz, arnasketaren bidez amiantoaren eraginpean egoteko arriskua sor diezaieketenak, bai langileei, bai kalterik har dezaketen beste pertsona batzuei. Lan horiek azal daitezke modu askotan; AAEEen inskribatutako enpresaren jardura nagusian jaso daitezke, edo zeharka zein aldi baterako ager daitezke askotariko beste jardura- eta enpresamotatan (LSOINen Gida Teknikoa).

Aurrekoa ezertan galarazi gabe, langileen noizbehinkako esposizioak direnean, esposizio horien intentsitatea txikia denean eta 5. artikulua xedatzen duen ebaluazioaren emaitzek argi eta garbi adierazten dutenean ez dela gaudituko amiantoarekiko esposizioaren muga-balioa lan-eremuko eremuan, **ez dira aplikatzekoak izango** 11. artikulua (laneko plana taxutzea), 16. artikulua (langileen osasuna zaintzea), 17. artikulua (Amiantoaren Arriskupeko Enpresen Erregistroan inskribatzeko beharra) eta 18. artikulua (datuak erregistratzea eta dokumentazioa artxibatzea).

Halakotzat hartuko dira ondoko jardueretan lan egiten denean: material ez zatikorrek in situ lan egiten den mantentze-jardura labur eta etenak egitea; material ez zatikorrek hondatu gabe kentzea; amiantodun materialak kapsulatzea eta egoera onean dauden amiantodun materialak zigilatzea, betiere eragiketa horiek zuntzak askatzeko arriskurik ez badakarte; airea zaintzea eta kontrolatzea; eta material jakin batean, amiantorik dagoen detektatzeko laginak hartzea (396/2006 Errege Dekretuaren 3.2 artikulua).

Beraz, aipatutako jardueretan aldi berean gertatu behar dira azaldutako hiru baldintzak, hau da, (1) langileen esposizioa noizbehinkakoa izatea, (2) esposizio horien intentsitatea txikia izatea, (3) eta esposizioaren arriskuen ebaluazioaren emaitzek muga-balioa

gaindituko ez dela argi eta garbi adieraztea, horiek esposizioaren arrisku- maila txikitatzat jotzeko irizpideak betetzen dituztela kontuan hartzeko, eta, horrela, 396/2006 Errege Dekretuaren artikulua batzuk baztertzeko modua emateko, baina, oro har, ezarritako gainerako betebeharrak bete behar dira, bai Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean, bai 396/2006 Errege Dekretuaren gainerako artikuluetan ageri direnak ere, eta, horrez gain, laneko prozedura segurua aplikatu behar da, ingurunean zuntzik isurtzen ez dela bermatzeko (LSOINen Gida Teknikoa).

Ez dute atal honetan sartzerik 396/2006 Errege Dekretuaren 3. artikulua lehenengo zenbakian jaso diren ohiko jardueretako bat duten enpresek, nahiz eta egiaztatu enpresak garatzen dituen lan batzuek, banaka hartuta, esposizioaren intentsitate-baldintzak betetzen dituztela, muga-balioa baino askoz ere txikiagoa dela (LSOINen Gida Teknikoa).

Noizbehinkako esposiziotzat hartzen da langileak amianto-zuntzekin duen kontaktua (esposizioa) aldizkakoa edo bakana denean, eta aurreikus daitekeenean esposizioa oso gutxitan gertatuko dela edo berriro ere gertatuko ez dela (LSOINen Gida Teknikoa).

Esposizio bat **intentsitate txikikotzat** sailkatzeko, kontuan hartuta, alde batetik, Agente kantzerigenoei edo mutagenoei buruzko 665/1997 Errege Dekretuaren 5.3 artikulua ezartzen duela teknikoki ahalik eta esposizio-mailarik baxuena bermatu behar dela, eta, bestetik, lanean agente kantzerigenoekiko edo mutagenoekiko esposizioari lotutako arriskuak ebaluatzeko eta prebenitzeko gida teknikoak ezartzen duela, lanean agente kantzerigenoekiko edo mutagenoekiko esposizio-maila zehazteko helburuz, komeni dela langileek arnastu dezaketen agente-kopurua zenbatestea, eta, horretarako, esposizio baxuaren intentsitatearen adierazle gisa, $0,025 \text{ zuntz/cm}^3$ -ko batez besteko amianto-zuntzen ingurumen-kontzentrazioa proposatzen dela. Gutxi gorabeherako erreferentzia-balio hori 4. artikuluan jasotako muga-balioaren kontzentrazioaren laugarren zatiari dagokio, bai eta ingurumen-kontzentrazioaren balioaren ehuneko 5ari ere ($0,5 \text{ zuntz/cm}^3$). Laneko Segurtasun eta Osasuneko Institutu Nazionalaren «Agente kimikoekiko esposizio profesionalaren mugak

Espainian» deritzon dokumentuak ezartzen duenez, muga ez da inoiz gainditu beharko lanaldiaren barruan.

Proposatutako balioa ez da esposizioaren muga-balioa, ingurumen-kontzentrazioa baizik (LSOINen Gida Teknikoa). Ildo horretan, eta irizpide horri jarraikiz, bi orduko esposizioa dakarren noizbehinkako jarduera bat intentsitate txikikotzat joko da, baldin eta eragiketa horren ziozko eguneko esposizioa $0,006 \text{ zuntz/cm}^3$ baino txikiagoa bada. Era berean, $0,025 \text{ zuntz/cm}^3$ -ko amianto-zuntzen batez besteko kontzentrazioaren gaineko 60 minutuko noizbehinkako esposizioa $0,003 \text{ zuntz/cm}^3$ inguruko eguneko esposizioaren baliokidea da (LSOINen Gida Teknikoa).

Irizpide horren arabera, esposizio zehatz bat intentsitate txikikotzat jotzeko eta 3.2 artikuluan jasotako salbuespenei hel dakiekeen aztertzeko, honako hau egiaztatu beharko da: alde batetik, manipulatu beharreko amiantodun materialek zuntzak igortzeko gaitasuna txikia dutela (hau da, AdM horri lotutako arrisku potentzialaren balorazioa arrisku baxukoa edo oso baxukoa dela), eta, bestetik, jarduera horri esleitutako ingurumeneko batez besteko kontzentrazioa proposatutako erreferentzia baino txikiagoa dela ($0,025 \text{ zuntz/cm}^3$) (LSOINen Gida Teknikoa).

Emaitzen ebaluazioari dagokionez, ebaluazioak argi eta garbi adierazi behar du amiantoarekiko esposizioaren muga-balioa ez dela gaindituko, eta hori gertatuko da ebaluazioari lotutako eguneko esposizioaren emaitza ingurumeneko muga-balioa/eguneko esposizioaren (IMB-EE) emaitzaren % 10etik beherakoa denean gertatuko da. Horrela, noizbehinkako esposizio zehatz batek $0,02 \text{ zuntz/cm}^3$ -ko batez besteko ingurumen-kontzentrazioa badakar –intentsitate txikikotzat jo behar da aurreko baldintzaren arabera–, eragiketa horrek iraun dezakeen gehieneko denbora, IMB-EE balioaren hamarrena ez gainditzeko eta hirugarren baldintza hori ez urratzeko, 4 ordukoa izango litzateke (hau da, $0,02 \times t/8$, $0,01$ baino txikiagoa).

3.2.a) atalean jasotako irizpidearen arabera definitu diren jarduera laburrei gagozkiela, non, eragiketan zehar, aurreko baldintzan adierazitako gutxi gorabeherako balioa baino ingurumen-kontzentrazio txikiagoari eustea zaila den, 3.2 artikulua barruko

jardueratzat har liteke, baldin eta, Esposizio Profesionalaren Mugei buruzko dokumentuan agertzen diren desbideratze-mugak errespetatuz, jarduera zehatz eta noizbehinkako horren eguneko esposizioaren balioak IMB-EE balioaren 0,1 baino txikiagoa bada.

Aireko zuntzen kontzentrazioaren neurketetan oinarritutako ebaluazio kuantitatibo fidagarriak izatea oso zaila denez, bereziki eragiketa laburrak eta noizbehinkakoak direnean, ebaluazioa egiten duen teknikariak jarduera jakin bati lotuta begiz jotzen diren kontzentrazio-balioak balioetsi ahalko ditu, aurreko esperientzietan edo ospe handiko erakundeetatik (LSOIN, HSE (Health, Safety & Environment), INRS (Institut national de la recherche scientifique) eta abar) datozen kanpoko iturri fidagarrietako datuetan oinarrituta. Hala ere, informazio fidagarriarik eta egiaztagarriarik ez badago jarduera jakin bat 3.2 artikuluan jasotako balizko jardueratzat hartzeko eta, informazio hori eskuratu arte, ebaluazioa esposizio-baldintza txarrenetan oinarritu beharko litzateke, baina inguruabar horrek nekez beteko lituzke aldi berean aipatutako hiru baldintzak; hortaz, kontuan hartu beharreko irizpide orokorra Errege Dekretua osorik aplikatzea da (LSOINen Gida Teknikoa).

3.2 artikuluaren **barrukotzat** har daitezkeen jarduerari eta eragiketei dagokienez, arrisku txikiko jarduerak izango dira, manipulatzeko den material motagatik eta kontserbazio-egoeragatik, aplikatzen den lan-teknikagatik (dena delako prozedurak ez dakar materiala hondatzeko edo zuntzak askatzeko arriskurik) eta jarduera egiten deneko ingurune edo tokiagatik (adibidez, kanpoan edo okupatu gabeko esparruetan). Kasu horietan, alderdi horiek batera gertatzen diren lan batean, zuntzak askatzeko aukerak hutsaren hurrengo edo txiki-txikia izan beharko luke, eta, beraz, begiz jotako ingurumen-kontzentrazioaren balioa bateragarria izan daiteke esposizio txikiko intentsitatearekin eta, nolanahi ere, esposizioaren muga-balioa baino askoz txikiagoa. Halako egoeretan, aireko kontzentrazioaren neurketen emaitzak MTA/MA-051/A04 «Aireko amianto-zuntzak eta beste zuntz batzuk zehaztea. Mintz-iragazkiaren metodoa/fase-kontrasteko mikroskopia optikoa» deritzon metodoaren kuantifikazio-mugaren azpitik egon daitezke.

Ezinezkoa da atal honetan jaso daitezkeen eragiketa jakinen adibideen zerrenda zehatza aurkeztea, dena delako jarduera jasotzea berariazko jarduera bakoitzaren inguruabarren arabera baita. Hala eta guztiz ere, artikuluko honetan aipatu ditugun lau jarduera-multzoetako bakoitzari doazkion betekizunetarako edo ezaugarrietarako gutxi gorabeherako irizpideak jasotzen dira gidan, onar daitezkeen eragiketa zehatzen adibide batzuk ageri direla, betiere deskribatu ditugun hiru baldintzak aldi berean betetzen badira eta, inolaz ere, amiantodun materiala haustea, hondatzea edo zatikatzea ez badakarte.

Artikulu honetan jaso litezkeen jarduera batzuetan, LSOINek eta OSALANek, hala badagokio, AdMen gainean egiten diren esku-hartzeei lotutako laneko jarduera eta prozedura seguruei buruz izan ditzaketen fitxa teknikoetara jotzen da; hain zuzen ere, horien jarraipenak bermatu egingo luke ezarritako baldintzak aldi berean betetzen direla (LSOINen Gida Teknikoa).

3. Laneko plana egiteko ardura:

3.1. Aplikatzekoa den araudia:

396/2006 Errege Dekretuaren 11.1 artikulua arabera, *enpresaburuak laneko plan bat egingo du Errege Dekretuaren aplikazio-eremuaren barruko amiantoaren eraginpeko arriskua dakarren lanen bat bakoitza hasi aurretik.*

Beraz, amiantoaren eraginpean jartzeagatiko arriskua dakarten lanak egiten dituen enpresa arduratuko da laneko plana egiteaz eta eraginkortasunez aplikatzeaz.

396/2006 Errege Dekretuaren 11.5 artikulua dioenez, *Errege Dekretu honen esparruan ageri diren lanak beste enpresa batzuekin kontratatzen edo azpikontratatzeko dituzten enpresaburuek egiaztatu beharko dute kontratista edo azpikontratista horiek laneko plan egokia dutela. Horretarako, lan-agintaritzak onartu ondoren, laneko plana bidali beharko zaio enpresa nagusiari.*

3.2. Prebentzio-jarduera taxutzeko eta antolatzeako ardura:

Enpresa batek industria-higieneko arloa barruratzen duen **prebentzio-zerbitzu propioa** badu, zerbitzu horretako teknikariak izan beharko lirateke, diziplina edo espezialitate horretan goi-mailako zereginak egiteko prestakuntza dutela, laneko plana idazten dutenak.

Enpresa batek industria-higieneko arloa bere gain hartzen badu diziplina edo arlo horretan goi-mailako eginkizunak betetzeko **prestakuntza duen langile** baten bidez, langile horrek berak idatzi beharko du laneko plana.

Enpresa baten prebentzio-antolaerak industria-higieneko arloa bere gain hartzen ez badu, prebentzio-hitzairena kudeatzen duen kanpoko prebentzio-zerbitzuak egin beharko luke laneko plana, eta erakunde horretako industria-higienearen arloko goi-mailako teknikariek idatzi beharko lukete plana.

3.3. Laneko planaren egileak:

Plana taxutzerakoan, gomendagarria da, behintzat, industria-higieneko espezialitatean adituak diren laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako teknikarien aholkularitza baliatzea. Laginketa-estrategia beharrezkoa izanez gero, higienista batek diseinatu beharko luke, eta planean jaso. Dena dela, gauzatu behar den laneko arriskuen ebaluazioa egin duten teknikariek taxutu ahalko (LSOINen Gida Teknikoa).

Halaber, komeni da laneko planak, besteak beste, honako datu alderdi hauek jaso ditzan:

- Enpresaren identifikazioa: izena, helbidea, harremanetarako telefonoa, posta elektronikoa.
- AAEEko inskripzio-zenbakia; enpresa lanak egiten diren autonomia-erkidegoan ez, beste batean inskribatuta badago, AAEEko inskripzio-ziurtagiriaren kopia ere aurkeztu beharko du.

- Laneko planaren arduradunaren izena eta sinadura. Laneko planaren egilea(k), izen osoa eta enpresan du(t)en kargua adierazita.
- Idazketa-data.
- Amiantoaren eraginpean jartzeagatiko arriskuen ebaluazioa egin du(t)en Laneko Arriskuen Prebentzioko goi-mailako teknikaria(k), industria-higieneko arloan aditua(k). Teknikari horiek, beharrezkoa izanez gero, laginketa-estrategia diseinatuko dute eta inguruneak laginak hartu eta ikuskatuko dituzte.
- Enpresaren prebentzio-modalitatea, eta, hala badagokio, kanpoko prebentzio-zerbitzuekin egindako hitzarmenen edukiak.
- 396/2006 Errege Dekretuaren esparruan jasota dauden lanak beste batekin kontratatzen edo azpikontratatzeko dituen enpresa sustatzailearen edo titularren, entitatearen edo antzeko organismoaren identifikazioa.

4. Langileen betebeharrak:

4.1. Aplikatzekoa den araudia:

396/2006 Errege Dekretuaren 11.2 artikulua dioenarekin bat etorritik, Laneko planak, besteak beste, honako hauek zehaztu beharko ditu: lanean zuzenean aritzen diren edo amiantodun materiala ukitu behar duten langileen zerrenda, lanbide-kategoriak, lanbideak, prestakuntza eta langile horien esperientzia zehaztu diren lanetan.

396/2006 Errege Dekretuaren 13.1 artikulua arabera, enpresaburuak **prestakuntza egokia bermatu beharko du** amiantodun hautsaren eraginpean jartzen diren edo egon daitezkeen langile guztientzat. Prestakuntza horrek ez du inolako kosturik izango langileentzat, eta amiantoaren eraginpeko jardueretan edo eragiketetan hasi baino lehen eman beharko da, bai eta betetzen dituzten eginkizunak aldaketak gertatzen direnean edo teknologia berriak baliatzen direnean edo lantaldeetan aldaketak egiten direnean ere; nolana ere, aldizka errepikatu beharko da prestakuntza.

396/2006 Errege Dekretuaren 13.2. artikulua arabera, prestakuntzaren edukiak erraz ulertzeko modukoa izan behar du langileentzat, eta prebentzioaren eta segurtasunaren arloan beharrezkoak diren ezagutzak eta gaitasunak eskuratzeko aukera eman behar die, bereziki honako hauei dagokienez:

- a) amiantoaren propietateak eta osasunean eragiten dituen ondorioak, tabakismoaren sinergia-eragina barne;
- b) amiantoa izan dezaketen produktu edo material motak;
- c) amiantoarekiko esposizioa ekar dezaketen eragiketak eta esposizioa minimizatzeko prebentzio-bitartekoen garrantzia;
- d) jardunbide profesional seguruak, kontrolak eta babes-ekipamenduak;
- e) arnasketa-ekipoen funtzioa, hautaketa, erabilera egokia eta mugak;
- f) hala badagokio, erabilitako ekipo motaren arabera, arnas ekipoen funtzionamendua egiaztatze moduak eta metodoak;
- g) larrialdi-prozedurak;
- h) deskontaminazio-prozedurak;
- i) hondakinen ezabaketa;
- j) osasunaren zaintzaren arloko eskakizunak.

Era berean, kontuan hartu behar da Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 19. artikulua edukia, manu horrek xedatzen baitu, babesteko betebeharra betez, enpresaburuak bermatu beharko duela langile bakoitzak prebentzioaren arloko prestakuntza teoriko eta praktikoa nahikoa eta egokia jasoko duela, bai kontratatzen den unean, kontratazioaren modalitatea edo iraupena edozein izanda ere, bai betetzen dituen eginkizunetan aldaketak gertatzen direnean edo lan-ekipamenduetan teknologia berriak baliatzen edo aldaketak agiten direnean.

Prestakuntzak langile bakoitzaren lanpostua edo eginkizuna jorratu beharko du berariaz, arriskuen bilakaerari eta beste arrisku batzuk agertzeko aukerari erreparatu beharko die, eta aldian-aldian errepikatu beharko da, beharrezkoa izanez gero.

Prestakuntza hori lanaldiaren barruan eman beharko da, ahal den guztietan, edo, bestela, beste ordu batzuetan, baina prestakuntzan emandako denbora lanalditik kenduta. Enpresak ematea dauka prestakuntza, bere baliabideak erabiliz edo besteren zerbitzuekin hitzartuz, eta prestakuntza horren kostua ez da inola ere langileen konturakoa izango.

4.2. Prestakuntza-jardueren helburua:

Prestakuntzak aukera eman behar die amiantodun hautsaren eraginpean jartzen diren edo egon daitezkeen langileei prebentzioaren eta segurtasunaren arloan beharrezkoak diren ezaupideak, trebetasunak eta gaitasunak eskuratzeko, hau da, beren zereginak betetzeko beharrezkoa den gaikuntza eskuratzeko, arriskuen ezagutza eta lan-prozeduren aplikazio zuzena ziurtatuz, bai eta norberaren nahiz beste pertsona batzuen babeserako hartu behar diren prebentzio-neurriak ere.

Prestakuntza-jarduerak amaitzean, komeni da trebetasunak eskuratu diren banaka ebaluatzea, langilea agindutako zereginak egiteko gauzatzeko gaituta dagoen ala ez erabakitzeko. Hala ez bada, enpresak lanak egitetik baztertu beharko du langilea.

4.3. Laneko planarekin batera, lan-agintaritzaren aurrean aurkeztu behar den prebentzio-dokumentazioa:

Laneko plana onartzeko eskaerarekin batera, enpresak beharrezkoa den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du, langileek prebentzio-prestakuntza nahikoa eta egokia jaso dutela egiaztatzeko.

Ondorio horietarako, 2023/2668 (EB) Zuzentarauaren I. bis eranskinaren arabera, honako hau zehaztu behar da langile bakoitzari dagokionez:

- prestakuntzaren edukia,
- emate-data,
- iraupena,
- prestatzailearen nortasuna,
- langilearen identifikazioa,
- prestatzailearen eta prestakuntza jasotako langilearen sinadura.

4.4. Prestakuntzaren iraupena

Indarrean dagoen araudiaren arabera, prestakuntzak gutxieneko iraupena izan behar du, nahikoa eta egokia, eta aukera eman behar die langileei prebentzioaren eta segurtasunaren arloan beharrezkoak diren ezaupideak eta gaitasunak eskuratzeko. Horretarako, prestakuntzaren diseinuan honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan: *prestakuntzaren helburua, lan-mota, prestakuntza jasotzen duten hartzailleak, horien ezaugarriak, aniztasuna, ikasteko gaitasuna, aurretiko esperientziak, hasierako prestakuntza edo birziklatzea den...*

UNE 171370-1: 2014 Arauak dioenari jarraikiz, gomendagarria da amiantodun lanetan aritzeko prebentziozko prestakuntzak, teorikoak eta praktikoak, beheko taulan adierazitako gutxieneko iraupena izan dezan, ondokoak aintzat hartuta: hasierako prestakuntza den (amiantoaren eraginpean jartzeko lehen aldiz lanean hasi aurretik emandakoa), lehen birziklatze-saioa den (aurretiko prestakuntzaren balio-aldiaren amaieran egindakoa, gehienez ere, hasierako prestakuntza eman denetik 6 hilabetera), aldizkakoa den (urtean behin edo lan-prozeduran aldaketaren bat gertatzen denean) edo birziklatze-saioa den (azken aldiz amiantodun materialekin lan egin zenetik urtebete baino gehiago igarotzen denean egin beharrekoa).

**AURREIKUSITAKO IRAUPENA (UNE 171370-1:2014)**

	<u>Aurretiko prestakun tza</u>	<u>Lehen birziklatze- prestakuntza</u>	<u>Aldizkako prestakun tza</u>	<u>Birziklatze- prestakuntza</u>
<u>TEKNIKARIAK</u>	20 ordu	6 ordu	6 ordu	20 ordu
<u>OBRAKO</u> <u>GAINBEGIRALEA</u>	20 ordu	6 ordu	6 ordu	20 ordu
<u>LANGILEA</u>	20 ordu	6 ordu	6 ordu	20 ordu

Komeni da ohartaraztea laneko arriskuen prebentzioaren arloko laneko arau-haustea dela, Lan Ikuskaritzak proposatuta zehatzeko moduko arau-hauste larritzat tipifikatua, langileei segurtasunari eta osasunari kalterik sorraraz diezaieketen lanpostuko arriskuei eta aplika daitezkeen prebentzio-neurriei buruzko prestakuntza eta informazio nahikoa eta egokia emateko betebeharrak ez betetzea, arau-hauste oso larria denean izan ezik.

4.5. Prestakuntza emateko unea. Aldizkakotasuna:

Prestakuntza amiantoaren eraginpean jartzea dakarten jarduerak edo eragiketak hasi aurretik eman behar da, langileek betetzen dituzten eginkizunetan aldaketak gertatzen direnean, teknologia berriak baliatzen direnean edo lantaldeetan aldaketak egiten direnean, eta, nolanahi ere, aldizka eman behar da berriro. Era berean, errepikatu egin beharko da egiten den jarduera-mota aldatzen denean.

LAPLren 19.2 artikulua dioenarekin bat, prestakuntza lanaldiaren barruan eman behar da, ahal den guztietan, edo, bestela, beste ordu batzuetan, baina prestakuntzan emandako denbora lanalditik kenduta.

4.6. Prestatzailearen nortasuna:

Prestatzaileak, gutxienez, industria-higieneko espezialitatearen arloan, goi-mailako eginkizunetarako eskatzen den prebentzio-prestakuntza izan behar du. Era berean, esposizio-arriskuei eta hartu behar diren prebentzio-neurriei buruzko ezagutza nahikoa izan behar du.

Enpresaren prebentzio-antolakuntzan parte har dezake (prebentzio-zerbitzu propioa edo izendatutako langileak) edo ez (kanpoko prebentzio-zerbitzua edo halako zerbitzuen bidez diharduten erakundeak/profesionalak), enpresak bere baliabideak edo besterenak erabil ditzakeelako, baina prestakuntzaren kostua ez da inola ere langileen konturakoa izango.

Horretarako, enpresak ziurtatu behar du prestatzaileak behar dituen baliabideak badituela, bera baita langileen prestakuntzaren arduradun nagusia alderdi guztietan (kalitatea, emandako edukien nahikotasuna eta abar).

4.7. Prestakuntzaren edukia:

Prestakuntzak, alde batetik, atal teorikoa izan behar du, eta, gutxienez, 396/2006 Errege Dekretuaren 13. artikulua jasotzen dituen edukiak jorratu behar ditu; bestetik, atal praktikoa eskaini behar du, eta, gutxienez, honako prestakuntza-alderdi hauek ezagutu eta praktikan jartzeko trebakuntza eskaini behar die langileei:

- AdMak bertatik bertara ezagutzea;
- norbera babesteko ekipamenduak; deskontaminatzeko unitateak;
- hautsa kentzeko eta ez barreiatzeko ekipak eta sistemak;
- hondakinen kudeaketa;
- amiantodun material zatikorrekin egindako lanak: zigilatzea eta presio negatiboa; seinaleztatzea eta beste.

Nolanahi ere den, edukiak nahikoa eta egokia izan behar du, lanpostua ardatz izan behar du, erraz ulertzeko modukoa izan behar du langileentzat, prebentzioaren eta segurtasunaren arloan beharrezkoak diren ezagutzak eta gaitasunak eskuratu ahal izateko eta langileek ezagutzen eta ulertzen duten hizkuntza batean eman behar zaie.

4.8. Prebentzio Baliabidearen prestakuntza:

Prebentzio-baliabide gisa izendatzen den langileak oinarrizko mailako eginkizunei dagokien prebentzio-prestakuntza ere izan behar du, gutxienez, eta, horrekin batera, prestakuntza teoriko eta praktikoa espezifikoa, egin beharreko teknikei, araei, arriskuei eta zaindu beharreko jardueretan aplikatu beharreko prebentzio-neurriei buruzkoa. Hori horrela, gutxienez, **50 orduko prestakuntza** behar da, eraikuntzan izan ezik, kasu horretan, **60 orduko prestakuntza** behar baita.

4.9. Amiantoa kentzeko lanak eraikuntzako obren esparruan:

Lanak eraikuntza-obra baten esparruan egiten badira, amiantodun hautsaren eraginpean jartzen diren edo egon daitezkeen langileek, amiantoaren arloko prebentzio-prestakuntzaz gain, lanpostuari datxekion prebentzio-prestakuntza espezifikoa ere izan beharko dute, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan ezarritakoaren arabera.

5. Laginak hartzea:

5.1. Esposizioaren lagin adierazgarriak hartzea:

Laneko ingurunearen ebaluazioari eta kontrolari buruzko 396/2006 Errege Dekretuaren 5. artikulua dioenez:

- 1. Amiantoarekiko edo amiantodun materialekiko esposizio-arriskua izan dezakeen jarduera jakin ororen kasuan, azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 16. Artikuluak jasotzen duen arriskuen ebaluazioak aintzat hartu behar du lantokiko aireko amianto-zuntzen kontzentrazioa neurtzea eta 4.1 artikulua*

ezarritako muga-balioarekin alderatzea, langileen eta esposizio-mailaren ezaugarriak eta norainokoa zehazteko. Ebaluazioaren emaitzak agerian uzten badu jarduera-mota hori gauzatzeko erabili den prozedura aldatu behar dela, dela lana egiteko modua aldatuz, dela prebentzio-neurri gehigarriak hartuz, beste ebaluazio bat egin beharko da prozedura berria ezarri ondoren. Paragrafo honetan agertzen den arriskuen ebaluazioaren emaitzak hala eskatzen duenean, 4. artikuluan ezarritako muga-balioa gainditzen ez dela bermatzeko helburuz, enpresaburuak lan-baldintzen aldizkako kontrolak egingo ditu.

- 2. Ebaluazioak aldizka errepikatuko dira. Nolanahi ere, prozeduraren, jardueraren ezaugarrien edo, oro har, langileen esposizioa aldaraz dezakeen lan-baldintzen funtsezko aldaketaren bat gertatzen bada, nahitaezkoa izango da eragindako lanpostuak berehala ebaluatzea.*
- 3. Arriskuen ebaluazioen eta lan-baldintzen kontrolen aldizkakotasuna zehazteko, kontuan hartuko da, gutxienez, langileek emandako informazioa, eta, bereziki, kontuan hartuko dira hasieran ebaluatutakoekiko esposizio-maila areagotzea eragin dezaketen faktoreak.*
- 4. Arriskuen ebaluazioak industria-higienearen arloko goi-mailako eta espezializazioko eginkizunak betetzeko trebatutako langileek egin beharko dituzte, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren VI. kapituluak ezarritakoaren arabera. Laginak hartzeko eta analisiak egiteko (zuntzak zenbatzeko) prozedura I. eranskinean ezarritako betekizunetara egokituko da. Errege Dekretu honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira amianto- edo asbesto-zuntzat: materia horren edozein barietatetako partikulak, baldin eta 5 mikronetik gorako luzera badute, 3 mikrometrotik beherako diametroa eta 3tik gorako luzera-diametro erlazioa dutenak.*

5.2. Jarduera Mota Zehatza (aurrerantzean, JMZ):

JMZ esaten zaio enpresak mota bereko materialen gainean egiten duen lanen multzoari, prozedura bera erabiliz eta antzeko lan-baldintzak gerta daitezkeen lekuetan. Kasurako, amiantodun zuntz-zementuzko plaka uhinduak estalkitik kentzea, azpitik eta hondatu gabe, eta, beharrezkoa izanez gero, aurretiaz plakak bustita eta torlojuak ebakita, zizaila-erako eskuzko erremintak erabiliz (LSOINen Gida Teknikoa).

Beraz, JMZ bakarra denean, eta esposizioa muga-balioarekin bat datorrela berretsi denean, ez da neurketa gehiago egin beharko ondorengo lan bakoitzeko esposizioa ebaluatzeko, ingurumen-kontroleko eta aldizkako ebaluazioa egiteko kasuetan izan ezik (aurrerago adieraziko dira kasu horiek).

5.3. Teknikari eskudunak

Laginak (langileen laginak, ingurumenekoak edo fisikoak) hartzen dituzten teknikari eskudunek eta zenbait eragiketa erraz egiten dituztenek (adibidez, laginketa-ponpa abian jarri eta gelditzea, lagingailua jarri eta kentzea edo erabili ondoren laginketa-sistema osoa garbitzea) ezaupide espezifiko egokiak izan beharko dituzte, hau da, industria-higienearen arloko espezializazioari lotutako goi-mailako edo erdi-mailako eginkizunak betetzeko eskatzen den gutxieneko kualifikazioa, betiere goi-mailako teknikariek ikuskatuta egiten badira. Era berean, komeni da kualifikazio hori zabaltzea amiantoari buruzko prestakuntza osagarria eta espezializatua hartuta.

Kasu guztietan, teknikariak enpresako prebentzio-modalitatekoak izan behar dira (dela hautatutako langilea, dela prebentzio-zerbitzu propioa, dela kanpoko edo mankomunatua).

Era berean, gogorarazi behar da prebentzio-zerbitzu horiek ezin izango diotela heldu 396/2006 Errege Dekretu honen 3.2 artikulua jasotako salbuespenari, baldin eta auren zerbitzuen katalogoan laginak (langileen laginak, ingurumenekoak eta/edo fisikoak) hartzea jasota badago, eta, beraz, **AAEEn inskribatu beharko dira eta Laneko**

plan orokor bakarra izan beharko dute ingurumen-laginak, langileen laginak eta/edo fisikoak hartzeko, eskumena duen lan-agintaritzak onartuta.

5.4. Prozedura:

LSOINek MTA/MA-051 metodoa garatu zuen, OMEren 1997ko metodoari jarraikiz, eta egokia da aireko zuntzen kontzentrazioak neurtzeko: *«Aireko amianto-zuntzak eta beste zuntz batzuk zehaztea. Mintz-iragazkiaren metodoa/fase-kontrasteko mikroskopia optikoa»* deritzo.

Emitza baliokideak ematen dituzten beste metodo batzuk erabiltzeko eragozpenik ez dagoela, MTA/MA-051 metodoa da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 30eko 2009/148/EE Zuzentarauak, langileak lanean amiantoaren eraginpean jartzeari lotutako arriskuetatik babesteari buruzkoak, lehentasunezkoztat jotzen duena.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023/2668 (EB) Zuzentarauak, 2023ko azaroaren 22koak, honako hau ezartzen du 2.2 artikuluan: *«paragrafo honen arabera beharrezkoak diren lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak indarrean jartzen ez dituzten bitartean, estatu kideek, ahal den guztietan, faseen kontrasteko mikroskopiaren bidez zenbatuko dituzte zuntzak, Osasunaren Mundu Erakundeak 1997an gomendatutako metodoari jarraiki, edo emitza baliokideak edo zehatzagoak ematen dituen beste edozein metodoren bidez»*.

Metodo horrek laginak hartzeko eta analisiak egiteko prozedura deskribatzen du, norberaren esposizioaren neurketan eta airearen ingurumen-kontrolako neurketetan aplikatzeko, honako egoera hauetan: lantokien ingurunean, amiantodun materialak badaudela edo egon daitezkeelako susmoa egiaztatzea, amiantoa erabiliz lan egiten den itxituren kanpoaldean, deskontaminazio-unitateen barruan edo, amiantoa erabiliz lan egin ondoren, lantokia eta haren ingurunea kutsatuta geratu ez direla eta amiantoaren eraginpean jartzeagatik arriskurik ez dagoela ziurtatzea. Mikroskopia optikoa da amianto-zuntzak airean neurtzeko metodologiarik ohikoena.

Emaizten kalitatea bermatzeko, bai laginak hartzeari dagokionez, bai analisiari dagokionez, metodo horren bidez ateratako emaitzak oso aldakorak baitira, LSOINen Gida Teknikoaren 3. eranskineko jarduketei jaramon egin behar zaie.

Laginak hartzeko kalitatea bermatzeko sistemaren bat ezartzea komeni da, laginketa-ekipoak, kalibrazioak, kontrolak, erregistroak eta abar aintzat hartuta, analisi-laborategietan eskatzen diren betekizunen ildoan jarduteko.

Era berean, komeni da, ingurumen-neurketak egin aurretik, amianto-zkoak ez diren beste mota bateko zuntzak ager daitezkeela kontuan hartzea. Amianto-zuntzak beste zuntz-mota batzuetatik bereiztea ezinezkoa da azaldutako metodoari jarraituz; beraz, bereizketa hori egitea beharrezkoa balitz, mikroskopia elektronikoan oinarritutako analisi-metodoak erabili beharko lirarteke.

5.5. Arriskuen ebaluazioa:

Amiantoaren eraginpean jartzeagatiko arriskua dakarren edozein lan hasi aurretik, arrisku horren ebaluazioa egin behar da, eta Laneko planean txertatu. AdMak dituzten lan guztiek aldeztu aurreko ebaluazioa behar dute. Ebaluazio hori prebentzio-neurrien inguruko erabakiak hartzeko eta erabili behar diren lan-prozedurak diseinatzeko oinarria da.

Ebaluazioa egitean, informazio-iturri fidagarrien edo iturri propioen datuak aintzat har daitezke (adibidez, enpresak aurretik egindako neurketak). JMZ bati lotutako esposizioei buruzko gutxi gorabeherako datu fidagarriak ez badago, **zuhurtziazko printzipioa** erabiltzea gomendatzen da, IMB-EE gaitutako delako hipotesitik abiatuta.

Aireko amianto-zuntzen kontzentrazioak jarduera zehatz bat lehen aldiz egiten denean neurtuko dira, eta lanak hasi eta albait lasterren.

Ebaluazioak aireko amianto-zuntzen kontzentrazioaren neurketen datuak jaso behar ditu beti.

Hala ere, horrek ez du esan nahi egiten diren lan guztietan neurketak egin behar direnik, esposizioaren ebaluazioa aurreko jardueretan lortutako neurketen emaitzetan oinarritu baitaiteke.

Ebaluazioak **aldian-aldian egin behar dira**. Horretarako, kontuan hartuko da, behintzat, langileek emandako informazioa, bai eta hasieran ebaluatutako esposizioa areagotzea sorraraz dezaketen alderdiak ere.

Nolanahi ere, prozeduraren, jardueraren ezaugarrien edo, oro har, langileen amiantoarekiko esposizioa alda dezakeen lan-baldintzen funtsezko aldaketaren bat gertatzen denean, berehala errepikatu behar da ebaluazioa.

5.6. Emaitzak:

Neurketetatik abiatuta, ebaluazioaren emaitzak IMB-EE indizearekin bat ez badatoz, lan-prozedura eta horri lotutako prebentzio-neurriak hobetu beharko dira, edo, bestela, beste lan-prozedura bat erabili, inguruneke zuntzen kontzentrazioa murrizteko eraginkorra dela frogatu duena. Prozedura berria aldatu edo garatu ondoren, beste ebaluazio bat egin beharko da, aireko amianto-zuntzen kontzentrazioa ere neurtuta.

Ebaluazioaren emaitzak IMB-EEren **balioarekin bat badatoz**, aldizkako ebaluazioak programatu behar dira, besteak beste, 4. artikuluko ezarritako IMB-EEren muga-balioa gainditzen ez dela bermatzeko.

Ebaluazioaren emaitzak IMB **baino handiagoak** badira, enpresak berehala jardun behar du egoera konpontzeko, prebentzio- eta babes-neurriak hartuta.

5.7. Dokumentazioa:

Arriskuen ebaluazioa 39/97 Errege Dekretuaren 23. artikuluko eta 7. artikuluko arautzen duten bezala dokumentatu behar da. Erabilitako informazioaren eta

ebaluazioan aplikatutako irizpideen erregistro eguneratua ere eduki behar da, laginketa-estrategia egokia ere jasota.

Era berean, lan-prozeduran egindako aldaketak xehetasunez dokumentatu behar dira, eta, lanak egin ondoren, langileen amiantoarekiko esposizio-datuak aurkeztu behar dira, 396/2006 Errege Dekretuaren 18. artikulua eta horren IV. eranskinak dakarren edukiak adierazitakoaren arabera.

Aldizkako ebaluazioak ere txertatu behar dira dokumentazioan, bai eta, hala badagokio, egindako jarduketa arrisku txikikotzat jotzeko arrazoiak ere, 396/2006 Errege Dekretuaren 3.2 artikulua jasotako jardueretako baten parekotzat jo daitezkeelarik.

6. Amianto-zuntzen azterketa kuantitatiboan espezializatutako laborategiak:

396/2006 Errege Dekretuaren 5.5 artikulua dioenaren arabera, *amiantoaren analisia (zuntzen zenbaketa) laborategi espezializatuek bakarrik egin ahalko dute, baldin eta laborategi horien egokitasuna laborategia kokatuta dagoen autonomia-erkidegoko lurraldeari dagokion lan-agintaritzak eraz baimentzen badu, II. eranskinean ezarritako prozeduraren arabera.*

396/2006 Errege Dekretuaren II. eranskinak dioenaren arabera, amianto-zuntzen analisia (zuntzen zenbaketa) espezializatutako laborategiek horien egokitasunaren aitorpen formala izan beharko dute, laborategiak kokatuta dauden lurraldeko lan-agintaritzak horretarako emandako gaitasun teknikoaren gainean objektibatuta eta funtsatuta.

lan-agintaritza horren aldeko ebazpena mugagabea dela ulertuko da, estatu osoan izango du balioa, eta BOEn argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

Aurrekoaren arabera, beraz, 396/2006 Errege Dekretuaren II. eranskinak adierazitakoaren arabera eraz baimenduta dauden laborategi espezializatuek **bakarrik** egin ahalko dituzte analisiak (zuntzen zenbaketa) eta txosten analitikoak, MTA/MA –

051 arauaren eredura. Bertan, iragazkian atzeman diren zuntz kopuruaren emaitza emango da, bai eta analisiaren ziurgabetasunaren emaitza ere, unitate bera erabiliz, CR-02/2005 eta CR-08/2013 protokoloen irizpideei eta gomendioei jarraituz.

Analisi-txosten horren gutxieneko edukia LSOINen Gida Teknikoaren 3. eranskinean ageri den 3. taulan dago jasota. Era berean, analisiaren txostenean, eskatzailearekin bat etorritik, laginetako aire-bolumena, aireko zuntzen kontzentrazioa eta metodoaren kuantifikazio-muga (zuntz-kopurua/cm³-tan adierazia) adierazi ahalko dira.

Laborategi horien zerrenda eguneratua LSOINen webgune honetan dago argitaratuta:

<https://www.insst.es/el-instituto/conoce-el-instituto/servicios-del-instituto/acreditacion-de-laboratorios-de-analisis-de-amianto/listado-de-laboratorios-especializados-en-el-analisis-de-fibras-de-amianto>.

7. Amianto-zuntzen azterketa kualitatiboan espezializatutako laborategiak:

Analisi kuantitatiboak egiten dituzten laborategiei buruz azalduak ez bezala, 396/2006 Errege Dekretuak ez du inolako betekizunik ezartzen amianto materialen atzemateko analisi kualitatiboak (identifikazioa) egiten dituzten laborategietarako.

Hala eta guztiz ere, amiantodun material baten identifikazio desegokiaren ziozko manipulazio desegokiaren ondorioak biziki larriak direnez, garrantzitsua da laborategiaren gaitasun teknikoaren egiaztatzea eta berrestea, laginen analisi kualitatiboak (identifikazioa) eskatu aurretik (LSOINen Gida Teknikoa).

Gaur egun, 396/2006 Errege Dekretuaren II. eranskinak amianto-zuntzen analisiak (zenbaketa) egiten dituzten laborategi espezializatuak bete behar dituzten irizpide teknikoak soilik ezartzen ditu, halako laborategiak baimentzeko. Dena dela, material batek amianto ote daukan zehazteko analisia egin behar denean, hau da, amianto-barietatearen identifikazioa laborategi batek emandako emaitzan oinarritzen denean, komenigarria da kalitatea kudeatzeko sistema egokia ezarrita duten laborategiak

izatea, bai eta emaitzen fidagarritasuna frogatzeko gaitasun-saiakuntzetan aldizka parte hartzen duten laborategiak izatea ere (LSOINen Gida Teknikoa).

Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/97 Errege Dekretuak xedatutakoaren arabera, eta 396/2006 Errege Dekretuak materialetako amiantoaren zehaztapenetan erabili beharreko prozedura zehazten ez duenez, UNE arauetan, LSOINen Gida Teknikoetan, Nazioarteko Arauetan (ISO) edo, halakorik ez badago, ospe handiko erakundeen beste gida batzuetan edo konfiantza-maila baliokidea ematen duten metodoetan (LSOINen Gida Teknikoa) jasotako metodoak edo irizpideak erabili ahalko dira.

LSOINek MTA/PI-010 «Amianto-zuntzen zehaztapen kualitatiboa – Polarizazio-metodoa – Barreiadura/Mikroskopia Optikoa» izeneko metodoa argitaratu zuen 2009an. Metodo horrek ISO 22262-1:2012 «*Air quality – Bulk materials – Part 1: Sampling and qualitative determination of asbestos in commercial bulk materials*» delako arauan jasotakoaren baliokidea den analisi-prozedura dakar.

Bi metodoek polarizazio-barreiadurako mikroskopia optikoa (aurrerantzean, PBMO) erabiltzen dute amiantoa identifikatzeko erreferentziazko tresna eta antzeko metodologia analitiko gisa. Irizpide ekonomikoez gain, erabilgarritasun- eta sentikortasun-irizpideei jarraikiz, Europako herrialde gehienetan usuen erabiltzen eta gomendatzen den teknika dugu PBMO. Halarik ere, PBMO teknikaz gain, emaitzak eztaba daezinak ez direnean edo mikroskopia optikoaren detekzio-mugatik beherako neurriak dituzten zuntzak ageri direnean, hautazko metodoak edo osagarriak erabil daitezke, hala nola mikroskopia elektronikoa edo X izpien difrakzioa. Horrela, ISO 22262 arauak mikroskopia elektronikoan eta X izpien difrakzioan oinarritutako beste metodologia bat ere jasotzen du; ISO 22262-1:2012 arauak ere halako teknikak aipatzen ditu (LSOINen Gida Teknikoa).

UNE-EN ISO/IEC 17025:2017 arauaren edo horren baliokidearen arabera ziurtatutako laborategi batek analisi-jarduerak azpikontratatzan baditu, laborategiak egiten duen

txostenak jarduera horretarako baimendutako laborategia dela egiaztatzeko behar den informazioa jaso beharko du.

VI. LANEKO PLANEN KUDEAKETA:

1. Administrazio-jarduketa:

1.1. Aplikatzekoa den araudia:

396/2006 Errege Dekretuaren 12. artikulua, Laneko planak izapidetzeari dagokionez, honako hau ezartzen du:

- 1. Laneko plana direnak direlako jarduerak gauzatuko diren lantokiari lotutako lan-agintaritzan aurkeztuko da, erakunde horrek onar dezan. Lantoki hori amiantoarekiko arriskua duten enpresen erregistroan inskribatuta dagoen autonomia-erkidegoa ez den beste autonomia-erkidego batean badago, enpresaburuak, Laneko planarekin batera, erregistro horretako inskripzio-fitxaren kopia bat aurkeztu beharko du. Aurreko artikuluko 4. paragrafoan aipatzen den laneko plana garatzen duen enpresaren instalazio nagusiak dauden autonomia-erkidegoko lurraldeari dagokion lan-agintaritzak onartu beharko du.*
- 2. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea berrogeita bost egunekoa izango da, eskaera lan-agintaritza eskudunaren erregistroan jasotzen den egunetik zenbatzen hasita; epe hori igaro eta berariazko erabakirik jakinarazi ez bada, laneko plana onartutzat joko da. Espedientea izapidetzean, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren eta kasuan kasuko autonomia-erkidegoetako prebentzio-arloko organo teknikoen txostena eskatu beharko da.*
- 3. Laneko plan bat onartzen duen lan-agintaritzak eta enpresa erregistratuta dagoen lurraldekoak desberdinak direnean, plana onartzeko ebazpenaren kopia bidaliko dio erregistratuta dagoen tokiko lan-agintaritzari.*
- 4. Errege Dekretu honetan araututa ez dagoen guztiari doakionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezarritakoa aplikatuko da.*

1.2. Lan Agintaritza eskuduna:

Laneko Plan Berariazko bati dagokionez, lanak egiten diren tokiko lan-agintaritzak dauka plana onartzeko eskumena. Enpresa lanak egiten direneko autonomia-erkidegoa ez den beste autonomia-erkidego batean inskribatuta badago, inskripzio-ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko du.

Izaera orokorreko Plan Orokor Bakarrari dagokionez, plana garatzen dueneko enpresaren instalazio nagusiak dauden tokiko lan-agintaritzak dauka plan hori onartzeko eskumena.

1.3. Administrazio-izapidetzea:

Laneko plana onartzeko eskaera lan-agintaritza eskudunaren aurrean aurkeztu eta gero, agintaritza horrek 45 egun balioudun ditu (hau da, larunbatak, igandeak eta jaieguntzat jotako egunak ez dira zenbaketan kontuan hartuko) ebazpena eman eta horren berri jakinarazteko, eta, hala ez bada, administrazio-isiltasunen ondorioz baietsitzat joko da (baiezko administrazio-isiltasuna).

Laneko plana onartzen bada, **aldeko ebazpena** emango da; **kontrako ebazpena**, laneko plana ezesten bada; edo, antzemandako akatsak direla eta, **zuzentzeko errekerimendua** egingo da. Hala, esanbidez erabaki ahalko da ebazteko eta jakinarazteko gehienezko epeak etetea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 22.1.a artikulua dioenaren arabera.

Onespen-ebazpenaren kopia bidali behar da, bai LSOINera (396/2006 Errege Dekretuaren I. xedapen gehigarria), bai enpresa erregistratuta dagoen tokiko lan-agintaritzara, laneko plana onartzen duenaz bestelakoa denean (396/2006 Errege Dekretuaren 12.3 artikulua).

1.4. Nahitaezko txosten-eskaera:

396/2006 Errege Dekretuaren 12.2 artikulua dioenarekin bat etorriz, espedientea izapidetzean, **Lan Ikuskaritzaren txostena eta OSALANen txostena eskatu behar dira** nahitaez.

Era berean, arestian esandako Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 22.1.d artikulua xedatzen duenaren arabera, esanbidez erabakitzen eta jakinarazten bada, nahitaezko txosten horien eskaerak ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epeak eten ahalko ditu, gehienez ere hiru hilabetez, eskaera egiten denetik txostena jasotzen den arte. Bi egitate horiek interesdunei jakinarazi beharko zaizkie.

2. Administrazio publikoen arteko datu-trukea:

AAEEn edozein idazpen egin ondoren, lan-agintaritzak eskudunak horren kopia bidali beharko du berehala LSOINera; bertan, amiantoaren ziozko arriskua duten enpresen errolda jasota egongo da (396/2006 Errege Dekretuaren 17.1 artikulua).

Gainera, planen bat onartzen duen ebazpena eman ondotik, plana onartzen duen lan-agintaritzak berehala helarazi beharko du LSOINera (396/2006 Errege Dekretuaren I. xedapen gehigarria) eta *enpresa erregistratuta dagoen tokiko* lan-agintaritzara, laneko plana onartzen duenaz bestelakoa denean (396/2006 Errege Dekretuaren 12.3 artikulua).

Era berean, amiantodun materialekin egindako lanetan izan den esposizioaren ebaluazio-datuak jaso eta gero, plana onartu duen lan-agintaritzak berehala helarazi beharko du LSOINera (396/2006 Errege Dekretuaren I. xedapen gehigarria) eta enpresa erregistratuta dagoen tokiko lan-agintaritzara, laneko plana onartzen duenaz bestelakoa denean (396/2006 Errege Dekretuaren 18.2 artikulua).

Enpresa batek jarduteari uzten badio esposizioa amaitu eta, gutxienez, 40 urte igaro baino lehen, berehala bidali beharko du lan-agintaritzara ingurumen-ebaluazio eta -

kontrolari buruzko datuak, langileen esposizio-datuak eta langileen osasun-zaintza espezifikoki buruzko datuak (396/2006 Errege Dekretuaren 18.4 artikulua). Lan-agintaritzak eskudunak langileen osasun-zaintza espezifikoki buruzko datuak jaso bezain laster, lan-agintaritzak berehala eta kopiarik gorde gabe bidali beharko ditu osasun-agintaritzak eskudunera, hark gorde ditzan, eta, nolana ere, bertan jasotako informazioaren konfidentzialtasuna bermatu beharko da.

3. Laneko plan-motak:

3.1. Izaera orokorreko Laneko Plan Bakarrik:

3.1.1. Aplikatzekoa den araudia:

396/2006 Errege Dekretuaren 11.4 artikulua ezarritakoaren arabera, *iraupen laburreko eragiketak direnean, aldizkako aurkezpenik ez dutenak edo aldeztu aurretik programatu ezin direnak, bereziki, mantentze- eta konpontze-lanak direnean, enpresaburuak lan bakoitzeko plana aurkeztu behar duen, jardueren horiek guztiak aintzat hartzen dituen izaera orokorreko plan bakarra aurkeztu dezake, jardueren garatzean kontuan hartu behar duen zehaztapenak jasotzen dituen. Hala eta guztiz ere, plan hori eguneratu egin beharko da lanaren gauzatze-baldintzak nabarmen aldatzen badira.*

3.1.2. Definizioa:

Laneko planaren modalitateetako bat da, ustekabeko edo premiazko egoera berezietan, laneko plan berariazkoa egitea egokia edo egingarria ez denean (LSOINen gida tekniko).

Ondore horietarako, Auzitegi Gorenaren 172/2022 Epaiak, 2022ko otsailaren 22koak, Doktrina Bateratzeko Kasazioan emandakoak, honako hau ezartzen du: «... *arau orokorra dugu, Errege Dekretuan jasotako edozein lan hasi aurretik... enpresaburuak deskribatutako xedapenetara egokitzen den laneko plana taxutu beharko duela... plan orokorraren salbuespeneko izaerak, batez ere, lan-arriskuen prebentzioa jokoan*

*dagoen arlo batean, interpretazio murriztailea egitera behartzen gaitu...; horrela, **plan orokorra soilik onartuko da eragiketak iraupen laburrekoak direnean, aldizka aurkezten ez direnean edo aldez aurretik programatu ezin direnean kontuan hartu barik...***

*Salaren iritzira, Ministerio Fiskalaren txostenarekin bat etorritik, errekurritutako epaian doktrina zuzena jasotzen da; hain zuzen ere, salbuespenezko arauari atxikitzeko funts ahalbidetzailea da eragiketak iraupen laburrekoak izatea... Eragiketa horietarako **egun bakarreko iraupena aurreikusten da, 4 lanordukoa, eta gehienez ere, 16 ordukoa, eraginpeko langile guztientzat, eta, horrela, 396/06 Errege Dekretuaren 4.1 artikulua xedatutako amiantoarekiko esposizioaren mugetara egokitzen da...** larrialdiko eta ezbeharren ziozko lanak iraupen laburrekotzat hartu ezin badira, horixe baita nahitaezko betekizuna 396/06 Errege Dekretuaren 11.4 artikulua jasotzen duen salbuespena aplikatzeko baldintza».*

Urgentziazko eta larrialdiko arrazoiak direla-eta, izaera orokorreko laneko plan bakarra aktibatzea nahikoa ez bada, plana zabaltzeko eskatu behar da, urgentzia eta larrialdi hori konpontzeko behar-beharrezkoa den denboran. Hori egin ondoren, laneko plan berariazko bat aplikatu beharko da, amiantoarekiko esposizio-arriskua dakarten eta egin behar diren lanei dagokienez.

3.1.3. Aplikatzekoak diren kasu praktikoak:

LSOINen gida teknikoaren arabera, izaera orokorreko laneko plan bakar batean jaso daitezkeen lanetako batzuk honako hauek dira:

- Mantentze-lanak eta konpontze-lanak, hala nola ur-hornidurako sareetan, industria-instalazioetan, ontzioetan eta abarretan.
- Larrialdi-egoeretan, eraikinak eraistea, amiantodun materialak aldez aurretik kendu gabe, azkar jardun behar denean.
- Ezbeharren eta/edo larrialdien ondorioz berehala egin beharreko lanak.

- Hondakinak biltzea eta garraiatzea.
- Zabortegetako lanak.
- Amiantodun materialak identifikatzeko analisiak eta saiakuntzak.
- Amiantodun materialak identifikatzeko azterketak, amiantoak detektatzeko helburuz, materialen laginak hartzea beharrezkoa denean.
- Aireak eta 3.2 artikuluan ageri diren beste jarduerak batzuk zaintzea eta kontrolatzea (*ikus* jarraibide honen aplikazio-eremu objektiboa), laneko planetik salbuetsita egoteko baldintzak betetzen ez dituztenean.
- Iturgintzako, elektrizitateko eta igeltserotzako lanetan, amiantodun material ez-zatikorren kantitate txikiak hartzea edo kentzea dakarten jarduketak; eraikuntza-obretan, adibidez, hodien zatiak, plaka solteak eta fibrozementuzko beste elementu batzuk daudenean; kontrolik gabeko (edo legez kanpoko) isurketen ondorioz, eremu irekietan, amianto-zementuaren hondarrak edo fidagarriak ez diren beste material batzuk dituztenean, hala nola amianto-binilozko lauzak.

Aitzitik, ez lirateke izaera orokorreko laneko plan bakar batean jaso behar, **segidako laneko plan batean** baizik, sarritan egiten diren estalkietatik edo zuntz-zementuzko hodietatik zati txikiak kentzeko lan txikiak, hala nola, urbanizatzean bertan, lurzattia prestatzen den bitartean edo plan sektorialen bat egokitzen denean, nahiz eta aldizka egiten ez diren lanak izan eta iraupen laburreko baldintzak bete.

3.1.4. Edukia:

396/2006 Errege Dekretuaren 11.2 artikulua xedatutakoaren arabera, izaera orokorreko laneko plan bakarrak artikulua horretan jasotzen diren alderdi guztiak zehaztu behar ditu, ezertan eragotzi gabe alderdi horietako batzuk, bereziki, gauzatzeko benetako baldintzei buruzko datuak, aldez aurretik ezagutu ezin direnez

gero, amiantoaren arriskupeko lanak hasiko direla jakinarazteko inprimakian gerora azaltzeko aukera.

Honako alderdi hauei buruz ari gara: lanak egingo direneko lekuaren kokapen zehatza, izaera orokorreko laneko plan bakarraren aplikazio-eremuaren barruan, hasiera-data, aurreikusitako iraupena eta abar.

3.1.5. Laneko prozedura segurua:

Ikus atxikitako 1. eranskina.

3.1.6. Izapidetzea, jarraipena eta kontrola. Lanen hasiera komunikatzea:

Ikus laneko planaren administrazio-jarduketa, kontrol eta jarraipenari buruzko atalak.

3.1.7. Izaera orokorreko Laneko Plan Bakarria eguneratzea:

396/2006 Errege Dekretuaren 11.4 artikulua ezarritakoaren arabera, *izaera orokorreko laneko plan bakar hori, onartu eta gero, eguneratu egin behar da, gauzatze-baldintzak nabarmen aldatzen badira.*

Ondorio horretarako, izaera orokorreko laneko plan bakarraren eguneratzea onar dezala eskatu behar zaio lan-agintaritzari eskudunari. Bestela, hasieran emandako ebazpenak balioa eta eraginkortasuna galduko du.

3.1.8. Izaera orokorreko Laneko Plan Bakarraren iraungitzea:

Alde batetik, lan-prozedurak etengabe hobetuko direla eta teknikaren bilakaerara egokituko direla bermatze aldera, eta, bestetik, indarrean dagoen eta aplikatzekoa den araudia betetzen dela bermatze aldera, bereziki, amiantoaren eraginpean jartzen diren langileen eta amiantoaren arriskupeko lanetan parte hartzen ez duten hirugarren pertsonen osasuna zaintzeari dagokionez, izaera orokorreko laneko plan bakarrak onartu eta hiru urtera iraungiko dira.

3.2. Laneko Plan Berariazkoa:

3.2.1. Aplikatzekoa den araudia:

396/2006 Errege Dekretuaren 11.1 eta 12.1 artikuluek diotenaren arabera, *Errege Dekretu honen aplikazio-eremuaren barruan dagoen amiantoaren eraginpean jartzearen ziozko arriskua dakarren lan bakoitza hasi aurretik, enpresaburuak laneko plana taxutu beharko du*; horrek ez du eragotziko izaera orokorreko laneko plan bakarra erabiltzeko aukera, betiere 3.1.2 atalean deskribatzen den ahalezko oinarria gertatzen bada.

3.2.2. Definizioa:

Laneko planaren modalitate honetan, gauzatu beharreko jarduera zehatza definitzen da, eta lan-prozedurak gauzatu behar diren baldintza berezietara egokitu beharko dira (LSOINen gida teknikoa).

Laneko plan berariazko batean jaso daitezkeen lanen adibide batzuk honako hauek dira: zuntz-zementuzko estalki uhinduak eta elkarri lotuak kentzea; lantoki legez egokitutako eraikin batean suaren aurkako babes gisa proiektatu den amianto kentzea; oro har, amiantodun material zatikor erabiliz egindako lan gehienak, sortzen den arrisku-maila handiagatik (LSOINen gida teknikoa).

3.2.3. Edukia:

396/2006 Errege Dekretuaren 11.2 artikulua xedatutakoaren arabera, laneko plan berariazkoak bertan aipatzen alderdi guztiak zehaztu behar ditu.

Laneko plan berariazkoren eredu normalizaturik ez badago ere, komeni da datuak eraz aurkeztu eta egituratzea, administrazio-aldian nahiz egikaritze-aldian aise aztertu ahal izateko.

3.2.4. Laneko prozedura segurua:

Ikus atxikitako 1. eranskina.

3.2.5. Izapidetzea, jarraipena eta kontrola. Lanen hasiera komunikatzea:

Ikus laneko planaren administrazio-jarduketa, kontrol eta jarraipenari buruzko atalak.

3.2.6. Iraungitzea:

Alde batetik, lan-prozedurak etengabe hobetuko direla eta teknikaren bilakaerara egokituko direla bermatze aldera, eta, bestetik, indarrean dagoen eta aplikatzekoa den araudia betetzen dela bermatze aldera, bereziki, amiantoaren eraginpean jartzen diren langileen eta amiantoaren arriskupeko lanetan parte hartzen ez duten hirugarren pertsonen osasuna zaintzeari dagokionez, izaera orokorreko laneko plan berariazkoa onartu eta urtebetera iraungiko da, baldin eta epe hori luzatzeko eskaera arrazoiturik egiten ez bada.

3.3. Segidako Laneko Plana:

3.3.1. Aplikatzekoa den araudia:

396/2006 Errege Dekretuaren 11.3 artikulua *segidako laneko plana izapidetzeko aukera aurreikusten du, eta lan-agintaritza beraren aurrean aurretiaz aurkeztu diren planen inguruan adierazitakora bidaltzen du, aldatu gabe dauden datuez denaz bezainbatean.*

3.3.2. Definizioa:

396/2006 Errege Dekretuaren 11.3 artikulua dioenarekin bat etorriz, segidako laneko plana enpresen eskura dagoen arauzko aukera bat da, enpresek beren dokumentu-karga eta aurkezteko zereginak murriztu ditzaten; hala, kasu jakin batzuetan, aurretik onartu den erreferentziazko laneko plan bakarrera jotzeko aukera dute enpresek.

Segidako laneko planak erabiliz gero, nabarmen bizkortzen da lan-agintaritzak bideratu behar duen administrazio-lana.

Segidako laneko plana, funtsean, laneko plan berariazkoa da eta, lan-agintaritza baten aurrean aurkeztuta, agintaritza horrek aurretiaz onartutako laneko plan berariazko batean jaso eta aldatu gabeko datu jakin batzuei lotzen zaie.

Hau da, bai segidako laneko plana, bai eredutzat hartu den laneko plan berariazkoa, lan-agintaritzak berak izapidetu eta onartu behar ditu.

3.3.3. Aurkezteko betekizunak. Edukia:

396/2006 Errege Dekretuaren 11. artikuluko 2. eta 3. zenbakien arabera:

- I. Segidako laneko plana erreferentziazat erabiltzen den laneko planaren eduki jakin batzuetara bidal daiteke; eredu hori behar bezala identifikatuta egongo da administrazio-espedientearen zenbakiarekin, betiere planak aldaketarik izan ez badu. Bestela, ezin izango da bidalketa hori egin. Honako hauek dira hizpide ditugun alderdiak:
 - a. Lanean zuzenean parte hartzen duten edo amiantodun materiala ukitzen duten langileen izenen zerrenda, bai eta haien lanbide-kategoriak, lanbideak, prestakuntza eta zehaztutako lanetan izandako esperientzia ere.
 - b. Aplikatuko diren prozedurak eta garatu beharreko lan-prozedura zehatz horiek egokitzeko behar diren berezitasunak.
 - c. Ingurunean amianto-zuntzen sortu eta haien barreiadura mugatzeko neurriak, eta langileen amiantoarekiko esposizioa mugatzeko hartutako neurriak.
 - d. Norbera babesteko ekipamenduak eta deskontaminazio-unitateak.

- e. Langileei zer arrisku duten eta zer neurri hartu behar duten jakinarazteko neurriak.
- II. Nolanahi ere, segidako laneko planak honako datu hauek jaso behar ditu nahitaez; datu horiek gagozkiela, ezinezkoa da erreferentziazko laneko planera igortzea:
- a. Lanen deskribapena, jarduketaren xede den materiala eta lanak gauzatzeko tokia.
 - b. Hasiera-data eta begiz jotako iraupena.
 - c. Hondakinak ezabatzeko neurriak.
 - d. Prebentzio-baliabideak.
 - e. Laneko ingurunea ebaluatzeko eta kontrolatzeko ezarritako prozedura.
 - f. Aurretik onartutako laneko plan berariazkoaren espediente-zenbakia, erreferentziazat hartuta.
 - g. Lana egiten den lekuan eta inguruan dauden pertsonen amiantoarekiko esposizioa saihesteko hartuko diren neurriak.

3.3.4. Aplikatzekoak diren kasu praktikoak:

Enpresak segidako laneko plan bat aurkeztu ahalko du lan-agintaritzan, baldin eta aldez aurretik lan-agintaritzak berak onartutako laneko plan berariazkoa badu, JMZ batean erabiltzeko, betiere antzeko lanak egin behar baditu.

Beraz, gomendagarria da segidako laneko plan bat baliatzea, sarritan egiten diren JMZ bati lotutako lanak egiten direnean. Bada, lan horietan, enpresak lan-prozedura egokiak eta ebaluatuak ditu, eta metatutako esperientziak erakusten du ez dela muga-balioa gainditzea espero (adibidez, zuntz-zementuzko estalkiak kentzea edo programa daitezkeen mantentze-lanak egitea).

Segidako laneko plan jakin bat aintzat hartzeko, gauzatu beharreko jarduerak edo atazak berdina izan behar du, eta lanak egiteko proposatzen den prozedurak zehatz-mehatz deskribatuta egon behar du erreferentziazko laneko plan berariazkoan eta, jakina denez, aplikatu nahi den kasu zehatzean egokia izan behar du. Hau da, funtsezko aldaketak izanez gero, beste laneko plan berariazko bat onartu behar da.

4. Laneko planaren kontrola eta jarraipena:

4.1. Aplikatzekoa den araudia:

396/2006 Errege Dekretuaren 11.2.d artikulua ezarritakoaren arabera, *lan-agintaritzan aurkeztu beharreko laneko planak lanaren hasiera-data eta aurreikusitako iraupena zehaztu beharko ditu.*

4.2. Amiantoarekiko esposizioaren arriskua dakarten lanetan hasi aurretik:

Onartu den laneko plan berariazko baten kontrola eta jarraipena egiteko, lanak hasteko benetako data jakin ondoren, enpresak era telematikoan komunikatu beharko dio lan-agintaritzari, gutxienez, hiru egun baliodun lehenago, bai lanen hasiera-data (eguna eta ordua zehaztuta), bai lanen aurreikusitako iraupena –begiz jotako lanorduen edo egunen kopurua zehaztuta, eta, kasu horretan, eguneko lanaldia eta atsedenaldiak adierazita–, bai eta lanetan parte hartuko duten langileen zerrenda zehatza ere.

Hiru lurralde historikoetako edozeinetan izaera orokorreko laneko plan bakarra aktibatzen bada, plana lurralde horietan onartu den edo ez kontuan hartu gabe, planaren kontrol- eta jarraipen-ondorioetarako, enpresak era telematikoan komunikatu beharko dio lanak egiten direneko lurraldeko lan-agintaritzari, gutxienez, hiru egun baliodun lehenago, bai lanen hasiera-data (eguna eta ordua zehaztuta), bai lanen aurreikusitako iraupena (begiz jotako lanorduen edo egunen kopurua zehaztuta, eta, kasu horretan, eguneko lanaldia eta atsedenaldiak adierazita), bai eta lanetan parte hartuko duten langileen zerrenda zehatza ere.

Plana aktibatzea guztiz justifikatutako urgentziatzeko arrazoiren baten ziozkoa bada, eta, beraz, lanen hasierako komunikazioa aurreko paragrafoan aipatu den gutxieneko aurrerapenez egitea ezinezkoa bada, enpresak berehala egingo du, jarduerari ekingo diola jakin eta berehala.

Hiru lurralde historikoetako edozeinetatik kanpo, izaera orokorreko laneko plan bakarren bat aktibatzen bada, eta plan hori lurralde horietako edozeinetan onartu bada, eta jarraipen-ondorioetarako, enpresak era telematikoan komunikatu beharko dio lanak egiten direneko lurraldeko lan-agintaritzari, gutxienez, hiru egun baliodun lehenago, bai lanen hasiera-data (eguna eta ordua zehaztuta), bai lanen aurreikusitako iraupena –begiz jotako lanorduen edo egunen kopurua zehaztuta, eta, kasu horretan, eguneko lanaldia eta atsedenaldiak adierazita–, bai eta lanetan parte hartuko duten langileen zerrenda zehatza ere.

Era berean, laneko plana onartu bada ere, lanak egiten ez badira, enpresak era telematikoan komunikatu beharko dio egoera hori lan-agintaritzari, onetsi dezan, eta horrek berehala helaraziko du, bai LSOINera, bai enpresa inskribatuta dagoen tokiko lan-agintaritzara, bi agintaritzak desberdinak direnean.

Amiantoaren eraginpean jartzeagatiko arriskua dakarten lanak hasteko komunikazioarekin batera, enpresak honako dokumentu hauek aurkeztu behar ditu era telematikoan:

1. Hondakinak tratatzeko kontratuaren kopia, bertan, enpresa kudeatzailea eta zaborteia agertzen direla, baldin eta aurretik erantsi ez bada edo onartu zenetik aldatu bada.
2. Garraiolariari, kudeatzaileari eta hondakindegia dagokienez, izaera orokorreko laneko plan bakarraren onespenez-ebazpenaren kopia, plan hori beste autonomia-erkidego batean onartu bada, baldin eta aurretik erantsi ez bada edo onartu zenetik aldatu bada.

3. Prebentzio-baliabidearen izendapenaren kopia, jasotako prestakuntzaren ziurtagiriarekin batera, baldin eta hori aurretik erantsi ez bada edo onartu zenetik aldatu bada.
4. Hiru lurralde historikoetako edozeinetan, izaera orokorreko laneko plan bakarra aktibatzen bada, honako hauek aurkeztu beharko dira, onartzeko tokia edozein dela ere:
 - egin beharreko lanen eta aplikatu beharreko prozedura zehatzaren deskribapena;
 - 396/2006 Errege Dekretuaren 11.4 artikuluan ageri diren baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak;
 - sustatzailearen, kontratistaren eta, ahal badagokio, azpikontratistaren datuak;
 - hondakinen garraiolariaren eta zabortegearen datuak;
 - lanak gauzatuko diren eremuaren kokapen zehatza, bai eta kendu beharreko materialaren ezaugarri zehatzak ere;
 - lantokiko planoaren kopia eta argazkiak;
 - laneko plana gauzatzeari buruzko beste edozein informazio garrantzitsu.
5. Hiru lurralde historikoetako edozeinetan, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo onartu den laneko plan bakar orokor bat aktibatzen bada, aipatutako dokumentazioaz gain, izaera orokorreko laneko plan bakarraren kopia eta planaren onespenez ere aurkeztu beharko dira.

4.3. Amiantoarekiko esposizioaren arriskua dakarten lanak amaitu ondotik:

Lanak egin ondoren, enpresak era telematikoan komunikatu behar dio lan-agintaritza eskudunari (ikus Administrazio-jarduketari buruzko atala) amiantoaren eraginpean

jartzeagatiko arriskua dakarten lanak amaitu direla, administrazio-espediente zehatza adierazita eta hondakinak identifikatzeko dokumentua aurkeztuta.

Era berean, era telematikoan aurkeztu behar dira amiantodun materialekin egindako lanen esposizioaren ebaluazioari buruzko datuak eta amiantoaren eraginpean jarritako langileen osasunaren zaintzari buruzko datuak, 396/2006 Errege Dekretuaren 18. artikulua adierazitako baldintzetan eta jarraibide honen edukiarekin bat etorritz.

4.4. AAEra bidaltzeko eskabide eta komunikazioen inprimakiak:

Legezko betebeharrak betetzeko xedez, eta jarraibide honen edukiarekin bat etorritz, jarraibide honen 2. eranskinean ageri diren dokumentuetan jasotako datuak eman behar dira, kanal telematiko hau erabiliz:

<https://www.euskadi.eus/erregistroa/amianto-enpresen-erregistroa/web01-a2langiz/eu/>

4.5. Lanak egiten parte hartuko duten pertsonen zerrenda aldatzea:

Laneko plana onartu ondotik, amiantoaren eraginpean jartzeagatiko arriskua dakarten lanetan parte hartuko duten pertsonen zerrenda aldatzen bada, era telematikoan komunikatu beharko dira, hasierako komunikazioarekin batera, parte hartuko duten langileei buruzko datu guztiak (lanbide-kategoria, planean deskribatutako lanetan izandako esperientzia, prebentzioko prestakuntza eta informazioa, osasunaren zaintza, jaso dituzten norbera babesteko ekipamenduak eta, hala badagokio, prebentzio-baliabidearen izaera adierazita).

5. Datuen erregistroa. Dokumentazioaren artxiboa:

5.1. Prestatu eta eguneratu beharreko dokumentazioa:

396/2006 Errege Dekretuaren 18.1 artikulua xedatutakoaren arabera, *LAPLren 23. artikulua ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, Errege Dekretu honen aplikazio-eremuaren barruan sartzen diren enpresek honako hauei buruzko dokumentazio-artxiboak prestatu eta eguneratuta eduki behar dituzte:*

- a) *Amiantoaren arriskupeko enpresen erregistroan (AAEE) inskribatzeko aurkeztu den eskabidea.*
- b) *Onartutako laneko planak.*
- c) *Amiantodun materialekin egindako lanen esposizioaren ebaluazioari buruzko datuak erregistratzeko inprimakiak, IV. eranskinean xedatutakoaren arabera.*
- d) *Langileen osasun-zaintza espezifikoki buruzko datuak erregistratzeko inprimakiak, V. eranskinean xedatutakoaren arabera.*

5.2. Datuak gordetzea:

18.1 artikuluko c eta d letretan xedatutako datuak, gutxienez, berrogei urtez gorde behar dira, amiantoarekiko esposizioa amaitu eta gero, eta enpresak epe hori amaitu baino lehen jarduteari uzten badio, lan-agintaritzara igorriko ditu datuok. Historia medikoei dagokienez, horiek jaso ondoren, lan-agintaritzak osasun-agintaritzara igorriko ditu kopiarik gorde gabe, eta azkenak gorde egingo ditu, betiere haietan jasotako informazioaren konfidentzialtasuna bermatuta (396/2006 Errege Dekretuaren 18.4 artikulua).

5.3. Amiantodun materialak erabiliz egindako lanetan izandako esposizioaren ebaluazioari buruzko datuen komunikazioa:

5.3.1. Aplikatzekoa den araudia:

396/2006 Errege Dekretuaren 18.2 artikulua dioenaren arabera, enpresek era telematikoan bidali behar dituzte «*amiantodun materialekin egindako lanetako esposizioaren ebaluazioari buruzko datuen erregistroa*» izeneko dokumentuan jasotako datuak, pertsonen gaineko neurketak egin diren ala ez kontuan hartu barik. Dokumentu hori jarraibide honen 2. eranskinean jasota dago, eta lanak egin diren tokiko lan-agintaritzara (laneko plan berariazkoa bada) edo enpresa erregistratuta

dagoen tokiko lan-agintaritzara (izaera orokorreko laneko plan bakarria bada) bidali behar dira.

<https://www.euskadi.eus/erregistroa/amianto-enpresen-erregistroa/web01-a2langiz/eu/>

Prebentzioaren ikuspegitik, datuen erregistro hori funtsezko informazio-iturria da amiantoak Espainian duen esposizioari buruz: alde batetik, enpresak JMZ bakoitzeko erabili duen lan-prozeduren jarraipena egin dezake, eta hala badagokio, aldaketa egokiak egin ditzake, eta, beste alde batetik, administrazioak amiantoaren eraginpean jarri diren langileen erregistro fidagarria izan dezake, erabilitako lan-prozeduren jarraipena egin dezake, eta zehatzago ezagutu ditzake langileek jasan ditzaketen amianto-zuntzen ingurumen-kontzentrazioak.

5.3.2. Lan Agintaritzara igortzeko epea:

Laneko plan berariazkoei dagokienez, enpresak era telematikoan eman beharko dizkio datu horiek, lanak gauzatu eta, gehienez ere, hiru hilabeteko epean, plana onartu duen lan-agintaritzari, eta hark informazio horren kopia bidaliko dio enpresa erregistratuta dagoen tokiko lan-agintaritzari, biak desberdinak badira.

Izaera orokorreko laneko plan bakarrei gagozkiela, enpresak era telematikoan eman beharko dizkio datu horiek enpresa erregistratuta dagoen tokiko lan-agintaritzari, egutegiko urtea amaitu baino lehen.

5.3.3. Lan Agintaritzara LSOINera bidaltzea

396/2006 Errege Dekretuaren I. xedapen gehigarriaren arabera, *Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 8. artikulua LSOINi esleitzen dizkion eginkizunak behar bezala betetzeko, lan-agintaritzek institutu horri bidaliko diote laneko planen onespenebazpenen kopia, bai eta agintaritzaren lurraldean erregistratutako enpresei buruzko informazio guztia ere, III. eranskinean eta IV. eranskinean agertzen denari jarraikiz.*

5.3.4. Amiantodun materialak erabiliz egindako lanetako esposizioaren ebaluazioari buruzko datuen erregistroa betetzeko gomendioak eta irizpide praktikoak:

LSOINen «IV. *eranskinean ageri den esposizioaren ebaluazio-datuak betetzean, kontuan hartu beharreko alderdiak*» izeneko dokumentu teknikoaren arabera, ondoko alderdiak hartu behar dira kontuan.

Komunikazioan jasotako datuak izendunak dira, eta, beraz, datu horiek guztiak bete egin behar dira lanetan parte hartzen duen langile bakoitzari dagokionez, laginketa egin den alde batera utzita. Honako hauek jaso behar dira:

- langilearen izena, NAN, AFZ (afiliazio-zenbakia),
- jarduera-mota,
- material mota,
- eguneko esposizioa,
- esposizio-egunak,
- EE (eguneko esposizioa adierazi beharko litzateke, bai neurketa pertsonala egin delako, bai esposizio hori onartu delako, jarduera jakin horren aurreko neurketen emaitzetan eta jarduera atxikita dagoen antzeko talde(ar)en emaitzetan oinarrituta).
- eta NBE motak (erabili den arnasbideen babes-mota ahalik eta zehatzen adierazi beharko litzateke, baita laneko arropa ere. «Egokiak» edo «Laneko planean adierazitakoak» eta antzeko deskribapenak saihestu behar dira).

Izaera orokorreko laneko plan bakarrei dagokienez, datu-erregistro bakarra edo jarduera-mota bakoitzeko bat bidal daiteke, honako alderdi hauek aipatuta: plana

gauzatzeko lanetan parte hartu duten langile guztiak, lan egindako egunen guztizko kopurua, eta esposizio horren adierazgarri den EEren balioa.

Laneko ingurunea eta deskontaminazio-indizea kontrolatzeko, hirugarrenak amiantoarekiko esposizioa jasatea izan duten amiantodun materialen gaineko jarduketa amaitu ondoren, komeni da ingurumen-neurketa estatikoaren emaitzak jasotzen dituen txosten higienikoaren zatia eranstea, kontuan hartuta puntu finkoko neurketak eguneko esposizioaren kalkuluarekin lotuta ez dauden ingurumen-kontzentrazioei dagozkiela.

Hori betetzeari doakionez, enpresako prebentzio-erakundeko lan-arriskuen prebentzioko teknikariek edo AAEEen inskribatutako enpresako arduradunak egin beharko lukete, sinatzen duena edozein dela ere.

Egindako jarduerari eta erabilitako material motari buruzko datuei dagokienez, aukera doituena adierazi beharko litzateke, eta amiantodun materialekin egindako lanen esposizioak zedarritzen laguntzen duen informazioa gehitu.

Laneko plan batek jarduera mota bat baino gehiago egitea edo material mota batean baino gehiagotan jardutea badakar, laneko plan horren zioz sortu den langileen esposizioaren ebaluazioaren datu guztien berri eman daiteke komunikazio bakar batean.

Laneko plan batek amiantodun material batzuetan jarduten badu eta/edo eragiketak komunikazioan jasotako zenbait jarduerarekin lotu badaitezke, komeni da adieraztea, eragiketa bakoitzeko, jarduera horretan emandako egunen kopurua, lan-aldi horri lotutako eguneko esposizioa eta erabilitako NBEak.

Ebaluazioari dagokionez, egilea(k), zuntzen analisia (zenbaketa) egiten duen laborategia eta horretarako erabilitako metodoa adierazi beharko lirateke. Laneko plana gauzatzean neurketarik egin ez bada, jakinarazpenean jarduera mota horretarako aldez aurretik egindako neurketetatik ateratako EEren balioa jaso beharko

litzateke, azken laneko plana adieraziz, non azalpenaren neurketak eta kalkuluak egin baitziren ebaluazio-metodologia kuantitatibo batean oinarrituta.

Langile bat baino gehiago antzeko esposizio-talde berekoak direnean, EE berdina erabiliko da langile guztientzat, neurketak egin bazaizkie edo egin ez bazaizkie

Komenigarria litzateke EEren balioa kalkulatzeko erabilitako neurketen jatorrizko datuak erakusten dituen txosten higienikoaren zatia eranstea.

JMZ beraren bi laneko plan gauzatuz gero, betiere bien arteko gauzatze-aldia urtebetetik gorakoa bada, gomendagarria da langileen esposizioaren beste ebaluazio bat egitea. Halaber, komeni da adieraztea arriskuen ebaluazioan JMZ beraren aurreko lanen neurketak erabili diren edo neurketa berriak egin diren.

5.4. Amiantoaren eraginpean jarritako langileen osasun-zaintza espezifikoiari buruzko datuak komunikatzea:

396/06 Errege Dekretuaren 18.3 artikulua dioenaren arabera, urtea amaitu baino lehen, era telematikoan bidali beharko da enpresa erregistratuta dagoen tokiko osasun-agintaritzara jarraibide honen 2. eranskinean jasotako «Amiantoaren eraginpean dauden langileen osasunaren zaintza» dokumentuan jasotako datuak. Gomendagarria da osasun-zaintza egiten denetik bi hilabeteko epearen barruan bidaltzea.

<https://www.euskadi.eus/erregistroa/amianto-enpresen-erregistroa/web01-a2langiz/eu/>

6. Hondakin ez-arriskutsuen kudeaketa:

6.1. Aplikatzekoa den araudia:

- I. 396/2006 Errege Dekretuak honako hau ezartzen du amiantoa duten hondakinei dagokienez:

- a) 6. artikulua araberaz, *enpresak prebentzio-neurri tekniko orokor batzuk hartu behar ditu, langileak amiantotik edo amiantodun materialetatik askatutako zuntzen eraginpean ahalik eta gutxien egon daitezten lantokian, eta, edonola ere, 4.1 artikuluan ezarritako muga-balioaren azpitik.*

Horretarako, enpresak enbalaje edo bilgarri itxi egokietan eta arauzko etiketak itsatsita biltegitatu eta garraiatu behar ditu amiantoa eta amianto-zuntzak edo amiantoa duten materialak. Era berean, hondakinak lantokitik kanpo bildu eta garraiatu behar dira lehenbailehen, bilgarri itxi egokietan eta amiantoa dutela adierazten duten etiketak itsatsita. Geroago, hondakin arriskutsuei aplikatu beharreko araudiaren arabera tratatuko dira.

- b) 11.2.d) artikulua dioenaren arabera, *laneko planak, besteak beste, hondakinak ezabatzeko neurriak zehaztu behar ditu, indarrean dagoen legeriaren arabera, enpresa kudeatzailea eta hondakindegia adierazita.*

Beraz, aurrekoarekin bat etorriz, laneko planak honako hauek aipatu behar ditu: hondakina ezabatzeko prozedura eta horrekin lotutako prebentzio-neurriak; sortuko den hondakinen kantitate zenbatetsia eta haien ezaugarriak; hondakinak biltzeko, enbalatzeko eta etiketatzeko prozedura; hondakinak aldi baterako metatzeko eremuan dauden lekua, baldintzak eta denbora; lan-eremutik pilotatzeko eremuraino zirkulatzeko bideak, eta, hala badagokio, langileak edo hirugarrenak hondakinen eremuan ibil daitezten saihesteko neurriak; hondakina kudeatuko duen enpresa, enpresa garraiolaria eta helburuko zabortegia, eta, hala badagokio, bitarteko biltegitatzea.

Aurreko paragrafoan aipatutako betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, hondakina tratatzeko kontratua aurkeztu behar du kudeatzaileak (bitarteko biltegitatzea, hala badagokio; zabortegia) eta garraiolariaren identifikazioa. Bi kasuetan, AAEE zenbakia eta horretarako berariazko baimena adierazi behar dira.

Hondakintzat hartuko dira, kendutako ADMak ez ezik, biltegiaritutako eta/edo erabileratik kanpoko guztiak ere, baita lanean erabilitako materialak ere (maskarak, laneko arropa, iragazkiak eta abar).

- II. 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, eraikuntza eta eraispeneko hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen duena.

IV. xedapen gehigarriaren arabera, *«Errege Dekretu honetan hondakinen arloan araututakoaz gain, langileak amianto-zuntzen edo amiantoaren duten materialen eraginpean jartzen diren edo eraginpean egon daitezkeen eragiketak eta jarduerak, lan-arriskuen prebentzioari dagokionez, martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuak arautuko ditu, amiantoaren eraginpean egoteagatiko arriskua duten lanei aplikatu beharreko gutxienezko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituenak».*

- III. 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzekoa.

6.2. Hondakinen garraioa:

6.2.1. Aplikatzekoa den araudia:

- I. 97/2014 Errege Dekretua, otsailaren 14koa, Espainiako lurraldean merkantzia arriskutsuak errepidez garraiatzeko eragiketak arautzen dituen. Errege-dekretu horrek ezartzen du merkantzia arriskutsuak nazioartean errepidez garraiatzeko buruzko Europako Akordioaren bertsio zuzendua Espainiako lurraldearen barruan oso-osorik egiten diren garraioei aplikatuko zaiela, I. eranskinean jasotako espezialitateak aintzat hartuta.

Halaber, barne-garraioari aplikatuko zaizkio Espainiak sinatzen dituen alde biko edo alde anitzeko nazioarteko akordioetako arauak, merkantzia arriskutsuen errepide bidezko nazioarteko garraioari buruzko Europako Akordioan xedatutakoaren arabera. Merkantzia arriskutsuen errepide bidezko nazioarteko garraioari buruzko

Europako Akordioan ezarritako baldintzak edo betekizunak baino zorrotzagoak ezin izango dira eskatu ibilgailuen fabrikazioari eta ekipamenduei dagokienez.

Errege-dekretu honek, besteak beste, honako hauek arautzen ditu: garraio-eragiketari buruzko arauak; garraio-ibilgailuei, ontziei eta bilgarriei buruzko arau teknikoak; ontziratutako gabeko ontzi handiei, enbalaje handiei eta ontziratutako gabeko edukiontziei buruzko arauak; matxurei eta istripuei buruzko arauak; zamalanei buruzko arauak; eta abar.

Haren III. xedapen gehigarrian ezartzen denez, hondakin arriskutsuen garraioari dagokionez, *Errege Dekretu honetan ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, hondakin arriskutsuak ontziratzeari, etiketatzeari eta lekualdatzeari buruz aplikatu beharreko arau espezifikoaren bidez arautuko dira*. II. eranskinak merkantzia arriskutsuen zamalanetarako egiaztapenen zerrenda ezartzen du.

- II. 553/2020 Errege Dekretua, ekainaren 2koa, Estatuko lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duena. Besteak beste, lekualdaketetarako baldintza erkideak ezartzen ditu, besteak beste, hondakinen tratamenduaren edukia (5. artikulua) eta identifikazio-dokumentu baten izapidetzea –aurreko kontrol- eta jarraipen-dokumentua ordeztzen du– (6. artikulua), agintaritza eskudunari aldeztatu aurretik jakinarazi behar zaion ala ez alde batera utzita.

6.2.2. Lan-arloko eskumena daukan sailaren administrazio-baimena:

Enpresak garraio-jarduera garatzeko izan behar dituen beste administrazio-baimen batzuk gorabehera, jarraibide honen ondorioetarako, hori egiten duen enpresak AAEEen inskribatuta egon beharko du, eta lan-agintaritza eskudunak baimendutako garraio-jarduerarako izaera orokorreko laneko plan bakarra eduki beharko du (396/2006 Errege Dekretuaren 3.1.f artikulua).

6.3. Hondakin arriskutsuen bitarteko biltegitratzea:

6.3.1. Aplikatzekoa den araudia. Definizioa.

Uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuak, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta ezabatzea arautzen duenak, eta apirilaren 8ko 07/2022 Legeak, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoak eta ekonomia zirkularra bultzatzekoak, 21.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, hondakin arriskutsu horien aldi baterako biltegitratzea jotzen da hondakin arriskutsuen bitarteko biltegitratzetzat, hondakinok sortu diren lekuaren barruan edo kanpoan, gehienez ere, 6 hilabetez, hondakinak biltegitratze-lekuan pilatzen hasten direnetik zenbatzen hasita, agintari eskudunen aurrean eskatutako salbuespenezko luzatze-baimenari eragozpenik egin gabe.

Aurrekoarekin bat etorritz, bitarteko biltegitratzetzat hartzen dira etxeko hondakinak eta antzekoak gaika biltzeko zentroak (Garbiguneak), baldin eta, beren araudi espezifikoaren arabera, amianto-hondakinak edo amiantodun materialak onartzen badituzte, edo berariaz onartu gabe, egiatan hondakin horiek beren instalazioetan jasotzen badituzte, paketatzea eta etiketatzea gorabehera.

6.3.2. Lan-arloko eskumena daukan sailaren administrazio-baimena:

Honako jarduera hau garatzeko eduki behar diren beste administrazio-baimen batzuk gorabehera, jarraibide honen ondorioetarako, aldi baterako biltegitratzea kudeatzen duen ustiategiaren titularrak **AAEEn inskribatuta egon beharko du, eta lan-agintaritza eskudunak aldi baterako biltegitratze-jarduera baimentzeko izaera orokorreko laneko plan bakarra** eduki beharko du (396/2006 Errege Dekretuaren 3.1.f artikulua).

6.4. Hondakindegia:

6.4.1. Aplikatzekoa den araudia. Definizioa:

Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta ezabatzea arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren 2.i) artikuluan xedatutakoaren arabera, *hondakinak gainazalean edo lurpean biltegitratuta ezabatzeko instalazioa da hondakindegia*.

Gainera, hondakindegizat hartuko dira hondakin arriskutsuak ekoizpen-lekuaren barruan edo kanpoan biltegitratzen dituzten instalazioak, 6 hilabetetik gorako aldian (hondakin arriskutsuak aldi baterako biltegitratzeko baimendutako gehieneko epea); eta hondakin ez-arriskutsuak ekoizpen-lekuaren barruan eta kanpoan biltegitratzen dituzten instalazioak, urtebetetik gorako epean, hondakin arriskutsuak ezabatzekoak badira, eta 2 urteko epean, hondakinak balorizatzekoak badira.

Ez dira hondakindegizat hartzen hondakinak balorizatu, tratatu edo ezabatzen diren beste instalazio batzuetara garraiatzeko deskargatu eta egokitzen direneko instalazioak –transferentzia edo bitarteko biltegitratze-zentroak–.

Gainera, 646/2020 Errege Dekretuaren 5. artikulua arabera, hondakindegia honela sailkatzen dira:

- *hondakin arriskutsuen hondakindegia;*
- *hondakin ez-arriskutsuen hondakindegia eta*
- *hondakin geldoen hondakindegia.*

Beste alde batetik, 5. artikuluko 2. paragrafoak dio sailkapen horrek ez duela eragozten hondakindegia bat kategoria horietako batean baino gehiagotan sailkatu ahal izatea, betiere dagozkion baldintzak betetzen dituzten gelaxka independenteak baditu.

Amiantodun hondakin zatikorrak, eraikuntza-materialetatik datozenak edo ez datozenak, hondakin arriskutsuen hondakindegietan metatu behar dira, eta,

salbuespen gisa, inguruabar jakin batzuen arabera, hondakin ez-arriskutsuen hondakindegietan; adibidez, behar bezala kapsulatuta dagoen material ez-zatikorra denean.

6.4.2. Lan-arloko eskumena daukan sailaren administrazio-baimena:

Hondakindegia jarduera garatzeko eduki behar diren beste administrazio-baimen batzuk gorabehera, jarraibide honen ondorioetarako, ustategiaren titularrak AAEEen inskribatuta egon beharko du, eta lan-agintaritza eskudunak hondakindegia jarduera baimentzeko izaera orokorreko laneko plan bakarra eduki beharko du (396/2006 Errege Dekretuaren 3.1.g artikulua).

6.4.3. Hondakindegia baimenduen zerrenda:

Ingurumenaren arloan eskumena duen sailak Euskal Autonomia Erkidegoan baimendutako hondakindegia edo zabortegeien zerrenda esteka honetan kontsultatu daiteke:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/hondakinen-ekoizpen-eta-kudeaketaren-erregistroa/web01-a2inghon/eu/>

VII. AMIANTO-ZEMENTUZKO ELEMENTUEN BIZITZA BALIAGARRIA LUZATZEA

1. Definizioa:

Bizitza baliagarriaren luzapentzat hartzen da amianto-zementuzko elementuen bizitza baliagarria irauteko edo luzatzeko jarduera. Esate baterako, amianto-zementuzko antzinako estalki bat bikoiztea, haren gainean estalki bat gainjarrita (estalki metalikoa edo beste material batekoa), edo hodiak konpontzea erretxinak, polimeroak edo antzeko materialak erabiliz.

Normalean, arrazoi ekonomikoengatik egiten dira jarduketak horiek, eta ez dute kontuan hartzen denboraren poderioz amianto-zementuzko elementuek propietateak galtzen dituztela.

Zehazki, amianto-zementuzko estalkiak bikoizteari dagokionez, jardunbide hori **desegokitzen jotzen da, eta, beraz, Euskadiko lan-agintaritzak ez du baimentzen**. Baimena ez emateko arrazoia ondokoa da:

- Egoera txarrean dauden estalkiez denaz bezainbatean, materiala bizitza baliagarriaren amaierara iritsi dela ulertu behar delako, eta estalkiak kendu egin behar dira, beren eginkizuna galdu dutelako (urarekiko edo haizearekiko estankotasuna, energia atxikitzea/sakabanatzea, erosotasun higro-termikoa, akustikoa eta luminikoa, egiturazko eta suaren aurkako segurtasuna eta iraunkortasuna).
- Eta egoera onean dauden estalkiei dagokienez, teknika horri lotutako arazoengatik, hala nola, amianto duen materialak ezkutatzea, bikoizketa-lanetan plakak haustearen ondorioz maila desberdinetan erortzeko arriskua agertzea edo esandako haustura horren ondorioz, zuntzak askatzeko arriskua agertzea.

Aurrekoa, beraz, amianto-zementua duen eta bikoizten den, estaltzen den edo antzeko eragiketa den beste edozein instalaziotara edo lanetara hedatu behar da. Estalkien

gainean eguzki-plakak edo antzeko beste edozein elementu instalatzeaz, ibai-hormak, paramentu bertikalak, hodiak, kanalizazioak edo amiantodun fibrozementuzko beste elementu batzuk instalatzeaz ari gara.

Azaldu ditugu eragiketa horietan guztietan, langileek fibrozementuzko plakak ukitzeaz gain, plaken gainean ibili eta lan egin behar dute, baita manipulatu, zulatu eta moztu ere, amianto-zuntzak ingurunean askatzen direla, eta, beraz, esposizioagatiko arriskua sortzen da langileentzat, osasun publikoarentzat eta ingurumenarentzat. Era berean, eragiketa horiek badakarte amiantodun produktuak eraldatzea, eta jarduera hori ere debekatu egiten du indarrean dagoen araudi aplikagarriak.

2. Amianto-zementuzko elementuen bizitza baliagarria luzatzeko debekua:

Aurrekoari eta 396/2006 Errege Dekretuaren 4.2 artikulua jarraiki, lan-agintaritza honen irizpena da amiantoa duten jatorrizko elementuen **bizitza baliagarria era artifizialean luzatzea baimentzerik ez dagoela**, salbu eta behar bezala egiaztatzen bada aldi baterako salbuespenezko edo larrialdiko inguruabarrak badaudela luzapena bidezkozteko.

Era berean, arestian esandakoa jarduera hauetara edo horien antzeko beste jarduera batzuetara ere hedatu behar da, kasurako: estalkiak bikoiztea, eguzki-plakak edo antzeko beste edozein elementu instalatzea estalkien, ibai-hormen, paramentu bertikalen, hodien, kanalizazioen edo amiantodun fibrozementuzko beste elementu batzuen gainean.

Hala berean, lan-agintaritza honen irizpidea da, eraikin batean amiantodun produkturik ez dagoela egiaztatzen duen dokumentaziorik izan ezean, lan-agintaritza eskudunak aldeztatik onartutako laneko plana duten enpresak, AAEEen inskribatutakoak, izan beharko direla honako jarduera edo eragiketa hauetakoren bat egiten dutenak:

- Estalki, hodi edo erreten bat osorik edo zati batean kendu eta amiantorik gabeko beste batez ordeztu;

- Estalki, hodi edo erretenetan, mantentze-lanak edo konponketak egitea.
- Itoginak konpontzea;
- Luminariak aldatzea;
- Erretenak garbitzea;
- Adierazitako ezaugarriak dituen eraikin batean egin beharreko antzeko beste edozein lan.

VIII. SOLDATAPEKO LANGILERIK EZ DUTEN LANGILE AUTONOMOAK:

Langile autonomoak dira irabazizko jarduera ekonomiko edo profesional bat ohikotasunez, modu pertsonalean, zuzenean, bere kontura eta beste pertsona baten zuzendaritza- eta antolaketa-eremutik kanpo egiten duten pertsona fisikoak (Lan Autonomoaren Estatutuari buruzko uztailaren 11ko 20/2007 Legearen 1.1 artikulua). Langile autonomoak besteren konturako langileak enplegatuko balitu, edozein enpresaren posizio juridikoa hartuko luke bere gain.

Atal honetan, soldatapekorik ez duen langile autonomoaren erregulazioa garatuko dugu.

1. Aplikatzekoa den araudia:

Norberaren konturako lana Lan Autonomoaren Estatutuan ezarritako araudi espezifikoak arautzen du. Beraz, langile autonomia edo norbere konturako langilea ez dago lan-legeriari lotuta (Langileen Estatutuaren I. xedapen gehigarria), eta, beraz, ezta lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudiari lotuta ere, horren aplikazio-eremua besteren konturako lana baita (LAPLren 1. artikulua).

Salbuetsita daude lege horren alderdi batzuk, «*lege-aginduz berariaz xedatzen direlako*», Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 3.1 artikulua dioenez: «*Lege hau eta berau garatzeko arauak aplikatuko dira, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginak araututako lan-harremanen esparruan, eta administrazio publikoen zerbitzupean dauden langileen administrazio edo estatutu-izaerako harremanen esparruan, lege honek edo hori garatzen duten arauak halakoetan jaso berezitasunak aintzat hartuta. Horrek guztiak ez dio kalterik egingo fabrikatzaile, inportatzaile eta hornitzaileentzat ezarritako betebeharrak zehatzak betetzeari, ezta langile autonomoentzat erator daitezkeen eskubide eta betebeharrak betetzeari ere. Orobat, lege hau eta berau garatzeko arauak aplikatuko zaizkie kooperatiba-sozietateei, horien arautegi bereziak dituen berezitasunak kontuan hartuta; kooperatiba horiek izango dira halakoei aplikatu beharreko legeriaren arabera*

eratutakoak, eta lan pertsonala egiten duten bazkideak dituztenak. Halaber, lege honetan langileak eta enpresaburuak aipatzen direnean, horietara bilduko dira, hurrenez hurren, batetik, administrazio edo estatutu-izaerako harremanak dituzten langileak eta horien zerbitzuak jasotzen dituen administrazio publikoa, lege honetako hirugarren xedapen gehigarriak ezarritakoaren arabera, eta, bestetik, aurreko paragrafoak aipatu kooperatibetako bazkideak eta horien zerbitzuak jasotzen dituzten kooperatiba-sozietateak.

Bestalde, 396/2006 Errege Dekretuaren 1.1 artikulua ezartzen du Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen esparruan gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezarri behar direla langileak lanean amiantoarekiko esposizioagatiko arriskuetatik babesteko, bai eta arrisku horiek prebenitzeko ere. Beraz, amiantoaren eraginpean jartzeagatiko arriskua duten lanak arautzen dituen *lege-corpusa*, hasiera batean behintzat, ez zaie aplikatuko soldatapekorik ez duten langile autonomoei.

Horren ondorioz, soldatapekorik ez duten langile autonomoak ezin dira AAEn inskribatu, aipatutako LPRLren eta hura garatzeko arauen aplikazio-eremutik kanpo geratzen baitira.

Arrazoi beragatik, soldatapekorik ez duten eta amiantodun materialekin lan egiten duten langile autonomoen jardura ez dago aurretiazko administrazio-baimenari loturik, hau da, ez dute amiantoaren eraginpean jartzeagatiko arriskua kontuan hartzen duen laneko planik egiteko betebeharririk (396/2006 Errege Dekretuaren 11.1 artikulua).

2. Soldatapekorik ez duen langile autonomoaren betebeharrak:

Aurrekoak ez du esan nahi, inola ere ez, erregelamendu horretan ezarritako gutxieneko segurtasun-baldintzak norberaren konturako langileei eragiten ez dietenik.

Horrela, produktu kutsagarriak eta arriskutsuak izan daitezkeen produktuak erabiliz jarduerak egiteko nahitaez bete behar den ingurumen- eta osasun-araudiaz gain, lan autonomoa arautzen duen laneko arriskuen prebentzioari buruzko legerian eta

eraikuntza-sektoreko araudi espezifikoan ezarritako betebeharrak eta obligazioak bete beharko dira.

Lan Autonomoaren Estatutuaren arabera, norberaren konturako langileen oinarritzko betebeharrak profesionala da «legeak edo sinatuta dituzten kontratuek laneko segurtasunari eta osasunari buruz ezartzen dizkieten betebeharrak betetzea, eta zerbitzuak emateko tokitik eratorritako arau kolektiboari jarraitzea» (Lan Autonomoaren Estatutuaren 5.1.b artikulua).

Zehazki, eraikuntzako obran, 1627/1997 Errege Dekretuaren 12.1 artikulua arabera, langile autonomoak betebeharrak hauek ditu:

- a) LAPLren 15. artikuluan jasotako prebentzio-ekinbidearen printzipioak aplikatzea, bereziki Errege Dekretu honen 10. artikuluan adierazitako zereginak edo jarduerak garatzean.
- b) Obra gauzatu bitartean, Errege Dekretu honen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak betetzea.
- c) Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 29. artikuluko 1. eta 2. paragrafoek langileentzat ezartzen dituzten arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak betetzea.
- d) Obran duen jarduna doitzea, LAPLren 24. artikuluan ezarritako enpresa-jarduerak koordinatzeko betebeharrak arabera, eta, bereziki, ezarritako edozein jardun koordinatutan parte hartzea.
- e) Langileek laneko ekipak erabiltzeko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretuak xedatutakoarekin bat datozen lan-ekipamenduak erabiltzea.
- f) Norbera babesteko ekipamenduak aukeratzea eta erabiltzea, maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuak, langileek norbera babesteko ekipamenduak

erabiltzeari buruzko segurtasun- eta osasun-arloko gutxieneko xedapenei buruzkoak, araututako baldintzetan.

- g) Obra gauzatzen den bitartean, koordinatzaileak edo, hala badagokio, zuzendaritza fakultatiboak segurtasun- eta osasun-arloan adierazitakoa eta emandako jarraibideak betetzea.

3. Soldatapekorik ez duen langile autonomia kontratatzen duen enpresaren betebeharrak:

Gainera, langile autonomia kontratatzen duen enpresak lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzen dela zaintzeko betebeharra du. Eta, betebeharrak betetzen ez bada, lan-ikuskaritzaren ikerketa eta kontrola garen gainekoa izango da, bai eta dagokion zehapen-prozesua ere.

Bestela esanda, langile autonomia kontratatzen duen enpresak zaindu behar du langile horrek lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzen duela, baldin eta kontratatutako obra edo zerbitzua haren jarduerari badagokio (Lan Autonomoaren Estatutuaren 8.4 artikulua).

Bereziki, eraikuntza-obran, langile autonomoak kontratatzen dituen kontratista edo azpikontratista oro «*Osasun eta Segurtasun Planean ezarritako prebentzio-neurriak behar bezala gauzatzearen erantzule da, zuzenean edo, hala badagokio, haiek kontratatutako langile autonomoei dagozkien betebeharrak dagokienez*» (1627/1997 Errege Dekretuaren 11.2 artikulua), eta modu solidarioan erantzungo du OSPn jasotako neurriak ez betetzearen ondorioez.

Zaintza-betebeharrak betetzen ez duten enpresek «*beren gain hartuko dituzte eragindako kalte-galerak ordaintzeko betebeharrak, betiere ez-betetze horien eta eragindako galera eta kalteen artean kausazko lotura zuzena badago*» (Lan Autonomoaren Estatutuaren 8.6 artikulua).

Eraikuntza-obra, 1627/1997 Errege Dekretuaren 11.2 artikuluan ezarritako zaintza-betebeharra ez betetzeak administrazio-erantzukizunak ere ekar ditzake; izan ere, arau horren 2.2 artikulua kontratista eta azpikontratista enpresaburutzat jotzen ditu, lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudian xedatutako ondorioetarako.

Obraren sustatzaileak langile autonomoak zuzenean kontratatzen baditu obra egiteko edo obra horretako lan jakin batzuk egiteko, kontratistatzat hartuko da aurreko paragrafoan adierazitako ondorioetarako (1627/1997 Errege Dekretuaren 2.3 artikulua), haren izaera profesionala gorabehera (adibidez, higiezinaren sustatzailea) edo ez (adibidez, jabeakideen erkidegoa).


4. Soldatapekorik ez duen langile autonomia kontratatzen duen enpresaren betebeharrak eta langile autonomoaren beraren betebeharrak:

Gainera, enpresak, oro har, eta kontratistak/azpikontratistak, bereziki, eraikuntzaren sektorean, segurtasun-baldintza horiek betetzen direla zaintzeko ardura dute, eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24.2 artikuluan eta Lan Autonomoaren Estatutuaren 8.3 artikulua xedatutako koordinazio- eta informazio-eginbeharra dute.

Horrela, enpresa titularrak (eraikitzen ari denean, obraren sustatzaileak edo jabeak) lantokiaren berezko arriskuei buruzko informazioa eman behar du, baldin eta arrisku horiek prebenitzeko neurriak eta aplikatu beharreko larrialdiko neurriak (171/2004 Errege Dekretuaren 7.1 artikulua, eraikitze-obretan, segurtasun- eta osasun-azterlanaren bidez), eta enpresa eta langile autonomoek elkarri eman behar diote informazioa lantokian garatzen dituzten jarduerak lantokian parte hartzen duten beste enpresetako langileei eragin diezaieketen arrisku espezifikoari buruz, bereziki jarduerak batera gertatzearen ondorioz larriagotu edo aldatu daitezkeenei buruz (171/2004 Errege Dekretuaren 4.2 artikulua) eta lan-arriskuak prebenitzeko beharrezkotzat eta egokitze jotzen dituzten koordinazio-bitartekoak definitu behar ditu (171/2004 Errege Dekretuaren 5. artikulua). Betebehar horiek ez betetzea laneko arau-haustea da laneko arriskuen prebentzioaren arloan, eta zuzenean eska dakioke lanetan parte hartzen

duten enpresa eta langile autonomo guztiei, erantzukizun zibil, penal edo gizarte-segurantzakoak alde batera utzita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 7a



ELENA PÉREZ BARREDO
Laneko eta Gizarte Segurantzako Sailburuordea
Viceconsejera de Trabajo y Seguridad Social

1. ERANSKINA

LAN-PROZEDURA SEGURUA:

Kontzeptua. Xedea:

Amiantoarekiko esposizioak dakarren arriskuari heltzen dion laneko plan ororen funtsezko zatia da.

Lan-prozedura guztiek seguruak izan behar dute, hau da, lan-ekipamendu egokiak erabiliz eta lan-baldintza egokiak baliatuz, ingurunera zuntzik aska ez dadin bermatu behar da, esposizio-arriskua teknikoki ahalik eta txikiena izateko helburuz. Amiantodun materialekin lan egitea dakarren edozein eragiketa edo jardueratan erabiliko da, nahiz eta lan-agintaritzak onartutako laneko planik izatea beharrezkoa ez izan.

Hain zuzen ere, behar bezala diseinatutako, ebaluatutako eta aplikatutako prozedura dugu amianto-zuntzekiko esposizioagatiko arriskuak eta jardueratik eratorritako beste arrisku batzuk ezabatzeko, murrizteko edo kontrolatzeko beharrezkoak diren prebentzio-neurriak txertatu behar dituen tresna, JMZ baterako jardunbide egokienetan oinarritua, eta honako hauek zehatz-mehatz zehaztu behar dituen:

- Lan edo zeregin jakin bat egiteko modua, sekuentziak deskribatuz: lan-eremua aldeztu aurretik prestatzea, esku hartu aurretik behar diren bitartekoak egiaztatzea, eta, lanak amaitu ondoren, langileen eta hirugarren pertsonen amiantoarekiko esposizioagatiko hondar-arriskurik ez dagoela bermatzen duten ekipoen eta eremuaren deskontaminazioaren azken egiaztapena.
- Gauzatze seguru eta antolatutako beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak (lan-ekipamenduak, norbera babesteko ekipamenduak eta abar).
- Aurreikus daitezkeen egoerak, larrialdiak, istripuak (hirugarrenak amiantoa kentzeko lekura sartzea, norbera babesteko ekipamendua aldean daramaten zaurituak lekualdatzea...) eta lanak egin bitartean

jazotako gorabeherak (plaka ustekabeen haustea, airea ateratzeko unitatean akatsa gertatzea, eskularruen poltsa haustea...).

Arrisku-prebentziorako bestelako neurririk egotekotan, arrisku-ebaluazioan (alturako lanak, zamalanak eta abar) eta aplikatzekoa den osasun- eta segurtasun-planean zehaztu denarekin bat etorri behar dute.

Lan-prozedura diseinatzean, kontuan hartu behar dira amiantoaren eraginpean jartzeagatiko arriskuak eta lanak egitean eragina izan dezaketen beste arrisku batzuk; horiek, gainera, arrisku-ebaluazioan (AE) edo osasun- eta segurtasun-planean (OSP) behar den moduan jasota egon beharko dute.

Arrisku-ebaluazioaren emaitzetan oinarrituta, proposatutako prebentzio-neurriak – neurri tekniko orokorrak barne– onartu beharreko laneko planean edo lan-prozedura seguruan txertatu beharko dira 396/2006 Errege Dekretuaren 3.2 artikuluan jasotako ekintzak baldin badira.

Prebentzio-neurri orori egiaztapenak eta kontrol-programa zorrotzak egingo zaizkie, neurriak lanaren aldi guztietan eraginkorrak direla bermatzeko, eta, hala badagokio, laneko planean jasoko dira aurreikusitako jarduketak, behar bezala funtzionatzen dutela eta eraginkorrak direla egiaztatzeko.

Gomendagarria da lan-prozedurak argibide errazen bidez ere idatziz jasotzea, langileek erraz uler eta aplikatu ditzaten; oso lan sinpleak direnean, ordea, ez da halakorik zertan egin.

Diseinua: Lan-prozedura egokiena hautatzea:

LSOINen gida teknikoak hainbat aholku eta gomendio ezartzen ditu lan-prozedura seguruak lantzeko; horretarako, amiantoarekin egiten den edozein lan edo eragiketan eskuragarri dauden jardunbide egokienak hartzen ditu oinarri, prebentzio-neurriak kontuan hartuz eta langileen babesa bermatuz (4. eranskina). Halaber, 8. eranskinaren

3. zenbakiko 2. atalak informazio osagarria jasotzen du amiantoarekin egiten diren lanen prozedurak diseinatzen eta hobetzen laguntzeko.

Gutxieneko edukia:

Lan-prozedura seguruak zehatz-mehatz eta segidan zehaztu behar du etapa eta eragiketa bakoitza gauzatzeko modua, eta beharrezko prebentzio-neurriak etapa horietan txertatu behar ditu:

Hasierako etapa: edo lanak hasi aurretik eta esposizioa hasi aurretik baldintzak planifikatu eta berrikustekoa. Honako alderdi hauek jaso behar ditu::

- Eremuaren, lantokiaren eta ingurunearen, iraganbideen eta hondakinak biltzeko eremuaren deskribapena (argazkiak erantsita).
- Isolamenduari, zedarritzeari, seinalaztapenari eta ekipamenduei buruzko zehaztasunak (krokisak erantsita).
- Laneko ekipamendu zehatz guztia (behar bezala hornitutako deskontaminazio-kabina, hondakin-esklusa, erauzgailuak, xurgagailuak, erremintak, NBEak, hondakinentzako ontziak...), beharrezko hornidurak (elektrizitatea, ura...) eta, hala badagokio, bestelako laguntza-bitartekoak (aldamioak, plataformak, babes kolektiborako eta norbanakoaren babeserako bitartekoak...) horien ezaugarriak, erabilera eta deskontaminazio-metodoa barne, baita horien funtzionamendua eta eraginkortasuna bermatzeko kontrol-neurriak (adibidez, konfinamendu-parametroen kontrola) ere, ekintzak eskatzen duenaren araberakoak (garaierako lanak, eremu konfinatuak, arrisku elektrikoa, atmosfera lehergarriak).
- Ingurunera amianto-zuntzak askatzeko aukera handiagoa duten lanetan –bai amiantodun material zatikorrekin edo narriatuta eta egoera txarrean dauden amiantodun material ez-zatikorrekin egiten diren lanetan, bai material amiantodun materialak moztu edo zatitu behar diren lanetan-kontrol-neurri

zorrotzagoak aplikatu beharko dira; besteak beste, baliteke elementuak isolatu, barrera fisiko bat erabili edo, lan-ingurunea gainerakotik banatzeko, lana hasi aurretik konfinamendu iraunkorra egin behar izatea.

- Giza-baliabideak, jarduera bera gauzatzeko behar direnak nahiz beste lanen bat egiteko behar diren pertsonak (adibidez, lanak ikuskatzea, aireko laginak hartzea, aldamiok muntatzea, horniduraz arduratzea eta abar) azken horiek, ahal izanez gero, lanak hasi aurretik edo kanpotik egingo dute egin beharreko lana. Hartara, amiantoaren arriskupeko lanetan zuzenean ari ez diren pertsonak lantokira sartzea saihestuko da, eta, beraz, amiantoaren eraginpean jarritako langile-kopurua murriztuko da.

Prebentzio-neurri guztiak LAPLe jasotzen dituen prebentzio-ekinbideko printzipioei jarraituz hautatuko dira, eta arriskuen jatorriaren aurka borrokatzeko prebentzio-neurriak lehenetsiko dira, baita babes-neurri kolektiboak ere, norbanakoaren babeserako neurrien gainetik.

Tarteko etapa: edo amiantodun materialekin zuzenean (edo horietatik gertu) lan egitea, amiantoak darabilen lanaren eta haren kokapenaren arabera zehaztu den metodologia erabiliz.

Ekintza kontrolatzeko jarduketaren deskribapena (konfinamenduaren egiaztapenak, ke-proba, aireko kontzentrazioaren neurketak eta abar) eta aurreikus daitezkeen egoerei edota larrialdi-egoerei loturiko jarduketaren deskribapena (material amiantoduna edo konfinamendua haustea, langilea lesionatu edo zorabiatzea, amianto-zuntzak ezustean askatzea, konfinamendu aktiboko sistemen akatsak); jarduera bakoitzaz nor arduratzen den adieraziko da.

Amaierako etapa: edo lan-eremuko garbiketa-deskontaminazioa eta azken egiaztapena (begizko ikuskapena eta deskontaminazio-indizea) egitekoa, esku hartutako eremua berriro okupatu baino lehen, eta hondakinak ezabatzea.

Lan-prozedura seguruek kontuan hartu behar dute lantokia etengabe garbitzeko eta sortuz doazen amiantodun hondakin jasotzeko beharra. Hondakinok seinaleztatutako biltze-eremu batean utziko dira, bilgarri egokiekin, ahalik eta denbora laburrenez, horiek garraiatu arte. Era berean, behar bezala deskontaminatu behar dira amiantoak darabilten beste lan batzuetan erabili ahalko diren lan-ekipamenduak (ikus tarteko biltegiatzeari buruzko atala).

Ingurunera amianto-zuntzik aska ez dadin erabili diren babes-bitartekoak behin betiko baztertu behar badira, garbiketa- eta deskontaminazio-lanek –azken egiaztapen-kontrolak barne– lantokia kutsatuta ez dagoela eta egindako lanen ziozko hondakin-arriskurik ez dagoela ziurtatu arte itxaron beharko da.

Deskontaminazio-indizea zehaztearen bidezko azken egiaztapenik behar den kasuetan, hura zehazteko zer metodologia erabili den eta hura alderatu eta onartzeko zer erreferentzia-balio eta irizpide aplikatuko diren jaso beharko du laneko planak. Kasu horietan, ingurumen-neurketaren emaitzak egokiak direnean baino ezin izango zaio lantokiaren ohiko ekintzari berriro ekin.

Prozedura-motak

Lan jakin eta bereziak egin behar direnean, lan-prozedura ere espezifikoa izango da. Larrialdi- eta konponketa-egoeren eta bestelako egoera berezien kasuan, prozedura orokorrari jarraituko zaio.

Izaera orokorreko laneko plan bakarrak lan-prozedura orokorretan oinarrituta egongo dira, eta prozedura horietan araututa egon beharko da zer material motari eta zer baldintzatan aplikatuko zaizkion. Halaber, langileen amiantoaren eraginpeko arriskua ahalik eta txikiena izango dela eta nabarmen aldatuko ez dela ziurtatuko dute. Laneko plan orokor bakarrek lan-prozedura segurua baliatu behar dute; hots, arrisku-ebaluazioaren emaitzari hoberen egokitzen eta doitzen zaizkion praktika eta prebentzio-neurriak aplikatuko dituzte, 5. artikuluan jasotzen den bezala.

Egoera jakinetan (instalazioetan zenbait elementu edo osagarri konpondu edo ezabatu behar direnean edo antzekoetan) material zatikorrek aritu behar baldin bada, gomendagarria da izaera orokorreko laneko plan bakarretan proposatzen diren lan-prozedurak aurretik probatzea, aplikazio-tartearen muturreko baldintzak edo, horrelakorik ezean, baldintza okerrenak kontuan hartzen dituzten simulazioen bidez. Simulazioek, halaber, laneko erremintak eta denborak probatzeko, amianto-zuntzen aireko kontzentrazioak neurtzeko, arriskuak ebaluatzeko eta langileak prestatu eta trebatzeko balioko dute. Nolanahi ere, aurretiko jarduketa hori prebentzio-jardunbide egokia izan beharko da, eta edozein material amiantoduni eta laneko plani aplikatu ahal izango zaio.

Laneko prozedura seguruaren hobekuntza eta berrikuspena:

Prozedurak etengabe hobetzea gomendatzen da, honako hauek kontuan hartuz: egindako azken neurketen emaitzen erregistro idatzia eta eguneratua; aplikagarriak diren lan-metodoen artean onena; egoera bakoitzeko prebentzio-neurri egokienak; arriskuak minimizatzeko aukera ematen duten aurrerapen teknikoak eta eskura dauden praktika onenak aplikatzea.

Lan-prozedurari, haren baldintzei, hura gauzatzeko moduari, prebentzio-neurriei eta antzekoei loturiko faktoreren bat aldatuz gero, beste ebaluazio bat egin beharko da, aldaketa horiek esposizioaren ezaugarriak alda ditzakete eta.

Laneko prozedura seguruaren aldaketa:

Lanak egin bitartean, aurretiaz onartutako laneko planean txertatu den lan-prozeduraren bat dagokion jarduketa garatzeko desegokia dela antzemanaz gero, laneko plana aldatzeko edo planean jasotzen den prozedura aldatzeko eskatuko zaio lan-agintaritza eskudunari, eta agirien bidez arrazoituko da lana modu seguruan nola gauzatu.

Emaitza IMB-EEren balioarekin bat ez badator, arrazoiak ikertu behar dira eta lan-prozedura aldatu beharko da, beharrezkoak diren hobekuntzak eginda edo beste lan-

prozedura batez ordeztuta, muga-balioarekin bat etorri, eta esposizioa ahalik eta txikiena izan dadin.

2. ERANSKINA

Amiantoaren Arriskupeko Enpresen Erregistroan (AAEE) eskabideak eta komunikazioak egiteko inprimakiak

- AAEEen IZENA EMATEKO eskaera
- AAEEen aurretiaz adierazitako DATUAK ALDATZEKO komunikazioa
- AAEEko INSKRIPZIOA BERRITZEKO komunikazioa
- AAEEen BAJA emateko eskaera
- Amiantodun materialekin lanean hasteko komunikazioa
- Amiantodun materialekiko lanen amaiera jakinarazteko komunikazioa
- AMIANTOAREKIN EGINDAKO LANETAN, ESPOSIZIOAREN ebaluazioaren DATUEN ERREGISTROARI buruzko komunikazioa
- Amiantoaren eraginpeko pertsonen OSASUNA ZAINTZEKO komunikazioa